

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

Gorpuak kostaldera ekarri ohi
ditu itsasoak, bai **RAMON SOLA > 11**


HAUTESKUNDE KANPAINA:

Krisialdiari erantzuteko ereduak
hautagai **> 12**


2020ko ekainaren 27a | XIV. urtea • 677. zenbakia
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



ERROTARRI FORMAKO AURKIKUNTZA



«Mikrohizkuntzen» bira
tematikoa, Europatik atera gabe 04

AEB: Aktibismo berria ala gazteek
sareetan zabaldutako adar jotze
ikaragarria? 08

Gasteizko Legebiltzarreko lau
indar nagusiekin krisialdiari
aurre egiteko ereduez solasean 12


Maskaren garaian, politika
begietara begira 16

Sarean 19

Errotarri formako aurkikuntza
eder bat 22

Uhina bekak, pentsamendu
kritikoa plazara 28

Juantxo Egañaren behatxulotik 31



SINADURAK:

- 03 **Isidro Esnaola:** Liberalen legeak
Estatuaren esku hartzea
murrizteko
- 10 **Oier Gorosabel:** Trigger
puntuak
- 11 **Ramon Sola:** Gorpuak
kostaldera ekarri ohi ditu
itsasoak, bai
- 17 **Alai Zubimendi**
- 20 **Gorka Etxebarria Dueñas:**
Izenik ez duen ezinegona
- 21 **Amaia Nausia Pimoulie:**
Terrazadun etxeen bila
- 27 **Joxean Agirre:** Despisteak eta
hanka sartzeak
- 27 **Nekane Zinkunegi**
Barandiaran: Zoazte pikutara!
- 30 **Garazi Goia:** Kontrolatu ezin
dugun hori



{ datorrena } **Isidro Esnaola**

Liberalen legeak Estatuaren esku hartzea murrizteko

Larrialdi egoera altxatuta, medikuntza premiak bigarren maila batera pasatu dira eta behar ekonomikoak, berriz, lehenengo lerro-ra datoz. Hilabete hauetan dirutza gastatu behar izan du Estatuak itxialdi orokorra mantendu ahal izateko; eta oraindik baliabideak gastatu beharko ditu. Gainera, testuinguru ekonomikoa ziurgabetasunez beterik dago. Hurrengo hilabeteetan ekonomiaren bilakaera nolakoa izango den aurreikustea oso zaila da, baina, oro har, eboluzio kaxkarra izango duela hautematen da. Hori dela eta, sektore ekonomikoa denak laguntza gehiago eskatzen ari dira. Ez hori soilik: orain arte Estatuak onartu dituen laguntza lerroak ez omen dira nahikoak; diru gehiago nahi dute. Egoera benetan xelebrea da: Estatuak ekonomian esku hartzea ukatzen dutenek haren inplikazioa nahi dute orain. Dirua jasotzeko beti daude prest enpresariak; hori bai, euren ekarpena handitzeko eskatzen zaienean, enpresen deslokalizazioaren ohiko mehatxua entzuten da.

Estatuaren esku hartzearen aldeko bat-bateko jarrera hori ez da berria. Beti gertatzen da gauzak okertzen direnean. Interesgarria izaten da erabiltzen den justifikazioa: egoeraren larritasunak agintzen du Estatuaren esku hartzea. Ez besterik. Inorentzat ez da arraroa hori eskatzea. Oso barneratuta dugu Estatua dela azken babes sarea. Hori bai, gauzak zuzentzen direnean, berriz hasten dira askatasuna eskatzen eta Estatuaren esku hartzea murrizten. Teoria bitxiak erabiltzen dituzte horretarako, adibidez, Sayren Legea. Jean-Baptiste Say frantses ekonomialaria eta enpresaria izan zen eta Adam Smithen jarraitzailea. Berak formulatu zuen “legeak” hau dio gutxi gorabehera: eskariaren tamainak finkatzen du ekoizpena, hots, ekoizteak berak sortzen du eskaria. Ideia horren zuzentasunaren bueltan eztabaida eskolastiko amaigabeak egin dituzte ekonomialariek.

Kontua ez da zuzena den ala ez, baizik eta “lege” horrek dituen ondorio praktikoak. Hasteko eta behin, hori horrela bada, merkatuak ez du inolako esku hartzerik behar, are gutxiago Estatuarena. Horregatik liberalek Sayren Legearen zuzentasuna irmoki defendatu dute eta sutsuki egin dute Gobernuak jarduera ekonomikoan esku hartzearen aurka. Hori horrela izan zen Depresio Handia iritsi arte. Orduan, John Maynard Keynesek esan zuen orokorrean gauzak horrela zirela, baina zenbait kasutan arazo txiki batzuk sortzen zirela eta kasu horietan egokia zela Estatuak ekonomian esku hartzea. Keynesen emendakin partzialak beste esku hartze zabalago baterako bidea ireki zuen. Reaganek eta Thatcherrek, berriz, buelta eman zioten Estatuaren esku hartze-ari. Eta, horrela, jira eta buelta, gaur egun arte.

Pandemiak erakutsi digu Estatuaren rola ekonomian ez dela soilik azken babes sarea izatea; horrez gain, jarduera ekonomikoaren antolaketaren oinarria da: funtsezkoa da kredituan, hornikuntzan...

Sayren Legea tontakeria bat da, baina, antzeko beste “lege ekonomiko” batzuek bezala, jokoa eman dezake posizio politiko zehatz batzuk justifikatzeko, esate baterako, Estatuak ekonomian egiten duen esku hartzea murrizteko. Eta horretarako erabiltzen dira batere lotsarik gabe. Pandemiak erakutsi digu Estatuaren rola ekonomian ez dela soilik azken babes sarea izatea; horrez gain, jarduera ekonomikoaren antolaketaren oinarria da: funtsezkoa da bere jarduna kredituan, hornikuntzan, prezioen finkapenean, zaintzan eta beste hainbat zerbitzutan. Hori da, hain zuzen ere, krisi honek utzi digun irakaspen nagusia. Gogoratzea komeni da, laster hasiko baitira Estatuaren esku-hartzea mugatu nahian. •

AZKEN HITZAREN JABEAK

Europatik atera gabe ere egin daiteke
«mikrohizkuntzen» bira tematikoa

Tamalez, ez dago jakiterik Dolly Pentreathek nola bizi izan zuen. Arrain-saltzailea Kornualleseko lur muturraren puntan sortu zen eta, diotenez, ingelesa 20 urte zituela ikasi zuen, legatz, bisigu eta bestelakoen artean. Jite handiko emakumea omen zen, arrantzaleekin eta bezeroekin tratua erraz eramaten zuen horietako bat. Hori besterik ez dakigu, bai eta 1777an zendu zela ere. Hauxe dugu, hain justu, **kornubiera** hizkuntzaren heriotza data ofiziala.

Mintzaira zelta hori XIV. mendean dokumentatu zen lehendabiziko aldiz, baina 1904 arte ez zen argitaratu lehen

 **KULTURA** / Karlos Zurutuza

Zer du buruan hizkuntz baten azken hiztunak? Bizirik al dago hiztun bakarra duen hizkuntza? Norberarekin hilko dela –edo hilda dagoela jada– pentsatzeak tristura sortzen duelakoan gaude. Bai eta ardura ere.

gramatika; jada hitz egiten ez zen hizkuntz batena. Dena, baina, ez zegoen galduta. Kornubiera berpizteko saiakera ugari izan dira azken ehun urteetan, 2008an arau berria finkatu zen arte. Handik bi urte eskasera, Unescok «galdutako hizkuntzaren» etiketa kendu zion kornubierari; pozarren hartu zuten albistea hizkuntz

aktibistek. Egia da birsortutako hizkuntza dugula egun, baina egon badago. Eta ez da makala.

DALMAZIERA

Kornuallesetik 2.000 kilometro ekialderantz bidaiatuko dugu. 1898ko ekainean, Adriatikoko Veglia irlan (egungo Krk), eraikuntza lanetarako le-

herketa batek eraman zuen **dalmazieraren** azken hiztuna. Italiera zen Tuone Udainaren ama hizkuntza, baina dalmaziera gurasoen etxeko elkarriketatik jaso zuen. Matteo Bartoli hizkuntzalariak egin dako lanari esker dakigu hori. Ikerlaria Vegliara bertara joan zen Udaina ezagutzeko eta, bide batez, dalmazieraren nondik norakoak jasotzeko.

Udaina marinela izan zela esan ohi da, bai eta postaria, apaiza... ere. Oraingoan ere ez dago zehatz-mehatz jakiterik. Dalmaziarrak istorio eta esamolde andana eman zion Bartoliri, 2.800 hitzeko glosario bat tartean. «*Ju potuo a favular in langa dalmata*» (“Nik dalmazieraz hitz egin dezaket”), bota zuen beren lehen

Tymoteusz Król da vilamovieraren hiztun gazteena.
Justyna OLKO



Aspaldi jo ziren galdutzat Kornuallesen hitz egiten zen kornubiera mintzaira zelta, Adriatikoko uharte eta itsasertzetako dalmaziera eta Ipar Kaukasoko ubij hizkuntza

elkarrizketan. Balkanetako es-laviar itsasoaren erdian mendez iraun ostean, dalmazierak bere latindar arimari eusten zion oraindik. Halaxe azaldu zuen behintzat Bartolik.

Dalmaziera hizkuntzalari bakar batek jarri zuen mapan. Udaina hil eta ehun urtera, alabaina, makina bat izan ziren Tevfik Esenç-en etxera bertaratu zirenak. Errusiarrek XIX. mendean Ipar Kaukasotik kanporatuen ondorengoa zen Esenç, Sotxi eskualdekoa, hain zuzen. Errusiarren eskuetan garbiketa etnikoa pairatu ondoren, Esenç izan zen hizkuntza gorde zuen azkenengoa.

Ubij hizkuntzari buruz hamaika elkarrizketa eman zizkien bere bisitariei. Grabazio ordu ugari dira, bai eta X izpiez egindako erretratuak. Huraxe modu bakarra jakiteko nola ahoskatzen zituen bere ama hizkuntzaren hiru bokal eta 82 kontsonanteak. Erradiazio dosi ikaragarriak izan omen ziren, baina Esenç prest agertu zen beti. Hein handi batean, bere gorputza zientziari eskaini ziola esan liteke, oraindik bizirik zegoela. 1992an zendu zen. Bere hilobian honako hau idaztea eskatu zuen: «Ubij hizkuntzaren azken hiztuna izan zen».

ZERREND A LUZE BAT

Oraindik garaiz gaude Europatik atera gabe ere “mikrohizkuntzen” bira tematiko bat egiteko. Euskal Herrian bertan hasi gintezke **gaskoiari** erreparatuz, hura ere gurea dela askotan ahazten zaigu eta. Pirinioetarantz jo dezakegu jarraian, **aragoieraren** azken arrastoen bila. Kataluniako Araneko arana handik gertu dago, baita gaskoiaren bere aldaera ere: **aranera**. Ttipia izan arren, osasuntsu omen dago,

Euskal Herrian bertan gaskoia dugu, gurea dela ahazten zaigun arren. Pirinietarantz jota, aragoieraren arrastoak aurkituko ditugu, baita gaskoiaren aldaera bizia den aranerarenak ere

ez, ordea, Alemaniako **frisiera** edo Istriako **istroerrumaniera**, beste hizkuntza askoren artean.

Ekialderanzko bidaia honetan, Karpato mendikatean eman genitzake egun batzuk. Bertakoek diote Andy Warhol (Andrej Warhala jaiotzez) artistaren ama hizkuntza **erruteniera** izan zela. 600.000 hitzun dira egun, baina kopuru totala baino askoz lagungar-

rriagoa da hitzunen adinari erreparatzea: umeen artean ere entzuten bada, osasuntsu dagoen seinale.

Azken hitzaren jabeekin jarraituz, Walter Surthlandi **norn** hizkuntza bere hilobira eraman izana leporatzen zaio, XIX. mendearen erdialdean. Bikingoen beste arrastoetako bat zen Eskoziako irletan. **Manxera** (Man irlan) Ned Madrellekin hilobiratu zuten 1974. urte hartan.

Irlaz irla gabiltza, saltoka. Sobietarren base militar batek kanporatu zituen Kuolka irlako biztanleak bertatik. Horrela, Baltikoan arrantzaz bizi zen livoniar herria Sobietar Batasuneko hirien artean banatu

zen. Hizkuntza menderatzen zuen bizilagunik gabe, **livo-niera** bere azken jabeen aho isiletan zendu zen. Kuolkan radar instalazioaren hondakina aurki daiteke oraindik ere. Valda Marija Šuvčānek handik gertu zuen etxea. Irlan gelditzen zen livonierazko azkenengo hiztuna 2007an hil zen. Hilabete gutxi batzuk lehenago, Urtzi Urrutikoetxea kazetari eta idazleak bere etxean bisitatu zuen. «Jakín bazekien bere ama hizkuntza joanda zegoela ordurako, baina indartsu sumatu nuen. Zioenez, livoniera galtzeak ez zekarren, inondik ere, bere herriaren desagerpena. Bestalde, andreak bazeukan hainbat gazteren



Kroaziako Krk irlan zendu zen dalmazieraren azken hiztuna. Andrej KILIC PRESS



hizkuntza berreskuratzeko ahaleginaren berri», gogoratu du bilbotarrak.

Baltikotik atera gabe **katzubiera** entzun daiteke oraindik Poloniako itsasertzean. Antza, Günter Grass edota Uwe Johnson idazleek hizkuntza horretan entzun zituzten lehen hitzak –amarengandik, jakina–.

Herrialdeko hegoaldean, Silesia eskualdea dugu bidaia honetako jomugetako bat. **Vilamoviera** Wilamowice herrian baino ez da hitz egiten egun. Bitxia da oso, batez ere hizkuntzalariak ez datozelako bat azken hizkuntza honen jatorria finkatzerako garaian. Batzuek diote alemanaren aldaera arkaikoa dela; beste batzuek Flandriatik XIII. mendean iritsitako kolonoen mintzairatzat jotzen dute.

Gaur egun hogei bat lagunek hitz egiten dute, 90 urtetik gorakoak gehienak.

27 urteko Tymoteusz Król dugu salbuespena. Mutil mokoia zela jaso zuen bera zaintzen zuen emakume bategandik (“amona” deitu zion 2015an zendu zen arte). Gaur, gazteak hizkuntzaren inguruko komunitate bat sortu du: eskolak ematen dira vilamovieraz, bai eta antzezlanak edota kontzertuak ere.

Vilamoviera Wilamowice herrian, Poloniako hegoaldean, Silesian, baino ez da hitz egiten. Egun hogei bat lagunek erabiltzen dute hizkuntza, 90 urtetik gorakoak gehienak

27 urteko Tymoteusz Król dugu salbuespen bakarra. Hizkuntzaren inguruko komunitate bat sortu du: eskolak ematen dira vilamovieraz, bai eta antzezlanak edota kontzertuak ere

Alde guztietatik iristen zen errepresioak mututu egin zituen Wilamowiceko herritarrek. Justyna OLKO

vieraz, bai eta antzezlanak edota kontzertuak ere. Geroz eta gehiago dira Interneten aurki daitezkeen edukiak.

Hizkuntzalaritza ikerketa potoloez gain, Królek dio horiek bezain garrantzitsua dela bere hizkuntza normalizatzea formatu guztietan, «eskola hiztegi xume batetik, Facebook kontu bateraino». Hori guxti ez, eta *smartphone* aurretuenetan ere erabiltzeko eskuragai daude alfabetoaren iturriak. Askok ez sinistu arren, hizkuntza txikienak handienak bezain ongi irudikatu dezake mundua: erremintak, lexiko berria funtsean, besterik ez da behar horretarako. William Shakespeare bera ere nekez izango zen Interneten nabigatzeko gai *e-mail*, *wifi* edota *website*

bezalako kontzeptu berriak menderatu gabe.

TUMOREAK ERAUZI

XIX. mendean herri osoaren hizkuntza zen vilamoviera (1.500 bat hiztun). Merkataritza trebeak omen ziren bertakoak, beraz, euren aldaera germanikoak ospea zuen eskualde osoan. «Vilamovieraz egiten baidu, diruduna izango da», pentsatu ohi zuten inguruko herritarrek.

XX. mendea, aldiz, ankerra izan zen oso bertakoentzat. Eskoletan «alemanaren dialekto» gisa jotzen zen, wilamowicetarrek «holandarrak» edo «frisiarrak» zirela errepikatu arren. Reich-ak ere «alemaniarrek» besterik ez zituen ikusten Silesiako bazter hartan; baita sobietarrek ere. Asko Si-

berriak gulagetan hil ziren, eta zigorra ez zen orduan bukatu. Varsoviak Wilamowiceko hizkuntza eta kulturaren gaineko beto bortitza ezarri zuen, eta hiztunak mutu gelditu ziren. Vilamovieraz hitz egite hutsak arazoak besterik ez zituen sortzen. Gainera, denek zekiten polonieraz.

HEBREERAREN KASUA

Biziraupen lasterketa amaigabea da maiz hizkuntza txikiarena. Haien gaineko ezjakintasunak ez du laguntzen, eta are gutxiago aurreiritzi arriskuetsuek: «jende primitiboaren mintzairak ei dira, ez dira gai XXI. mendearen erronka eta euskarri berriei eusteko eta, beraz, desagertzea da gauzarik naturalena».

Dozenaka klixeri eutsi ahal diegu hizkuntzen galera justifikatzeko. Debatea, baina, errepikakorra bezain elkorra da. Noiz sina daiteke hizkuntza baten heriotza agiria? Bizirik ote dago hiztun bakarra duelarik? Aldi berean, berpiztutzat eman daiteke eskola nahiz kaleko seinaleetan agertze hutsagatik (**kornikera** eta **manxera**)? Zalantzarik gabe, **hebreerarena** dugu hizkuntza bat berpiztearen kasurik arrakastatsuen. 2.000 urtez hilda egon ondoren, liburu sakratuetatik atera eta normalizatu egin dute juduek. Ez da hizkuntza berreskuratzeko antzeko kasurik ezagutu giza arrazaren historian.

7.000 HIZKUNTZA MUNDUAN

Lur planetan 7.000 hizkuntza inguru omen daude bizirik eta, adituen aburuz, horien erdiak desagertuko dira mende honetan zehar. Hizkuntzak hil egiten dira, deus ere ez baita betirako mundu honetan, eta hizkuntzak mundu honetako-

ak dira. Baina hiltzeko modu desberdinak daude. Latina lasai zendu zen, ohean, atzean erromatar arku izugarria utzi zuela: Galiziako Rias Baixasetik Danubioko deltaraino; galizieratik errumanieraraino.

Tamalez, badaude hiltzeko modu askoz ankerragoak. Nazio-estatuaren gorputzetan «tumor» gisa hartu dira askotan hizkuntza gutxituak; **euskara**, **kurduera** edota **amazigera**, esaterako, erauzteko hamaika saiakera izan dira historian zehar, beste asko betirako desagertu diren bitartean.

Vilamoviera izango al da hurrengoa? Tymoteusz Królen izena gehitu beharko dugu «azken hiztunen» zerrendan. Berari luzatu diogu galdera: «Ni baino gazteagoak diren

Noiz sina daiteke hizkuntz baten heriotza agiria? Bizirik ote dago hiztun bakarra duelarik? Berpiztutzat eman daiteke eskola edo kaleko seinaleetan agertzeagatik?

Hizkuntza bat pertsona bakar batekin lotzeak zera ekartzen digu gogora: gizaki haren mintzaira munduari begiratzeko lente bat izan zela inoiz. Herri oso batena.

herritar batzuk gogo eta kementa erakusten ari dira. Nola-nahi, hizkuntza bat ikastea ez da inoiz erraza, are gutxiago hitz egiteko aukerarik apenas dagoenean», dio gazteak.

Zailtasunak zailtasun, Dolly eta Tuoneren zerrenda berean inoiz agertzeak ez dio loa kentzen poloniar gazteari. Bestalde, izen-abizenak jartzea hildako hizkuntza bati literatura kontu hutsa da, ez zientziarena. Kornubiera hiztun bat, arrantzale bat agian, egon al

zitekeen Ternuan galduta Dolly hil eta askoz beranduego? Eta Udaina leherketak eraman ostean, nola froga genezake ez zegoela oraindik dalmazieraz amets egiten zuen amonarik? Ez dezagun ahaztu ehunka irla eta irlatxo direla Adriatikokoan. Hizkuntza bat pertsona bakar batekin lotzeak zera ekartzen digu gogora: gizaki haren mintzaira munduari begiratzeko lente bat izan zela inoiz.

Herri oso batena.

Wilamowicen, taberna giroan eta ordu txikitik abestu ohi dira aberriari buruzko abestiak.
Justyna OLKO



TIKTOK, TRUMPEN AURKA

Aktibismo berria ala gazteek sare sozialen bidez gauzatutako adar jotze izugarria?

 **JENDARTEA** / Pablo Ruiz de Aretxabaleta

Donald Trumpek iragarri zuen «ia milioi bat pertsona» elkartuko zirela joan den astean Oklahoman egin zuen mitinean. Bere ohiko ahobero jarrrerarekin, jendetza espero zuen AEBetako lehendakariak hauteskunde kanpaina bultzatzeko antolatutako ekimenen. Alderdi Errepublikanoak 19.000 lagun Tulsako Bank of Oklahoma Center pabiloian sartu eta kanpoan beste 40.000 elkartzea espero zuen.

Aurreikuspenak aurreikuspen, AEBetako presidenteak itxura tristeko harmaila erdi hutsari luzatu behar izan zion bere hitzaldia. Eserleku gehienak hutsik zeuden, sare sozialetan elkarbanatutako argazki eta bideoetan argi geratu zen moduan. Tulsako suhiltzaileen arabera, 6.200 jarraitzaile joan ziren presidentea entzuterat. Trumpen kanpainako ardura-dunen arabera, berriz, 12.000 ikusle izan ziren.

Datu saltsatik harago, porrot handia izan zen Trumpentzat. Gainera, non eta 2016ko hauteskundeetan gehiengo zabala lortu zuen hegoaldeko estatu kontserbadore batean. Ondorioz, bere kanpainari eman nahi zion bultzada ezerezean geratu zen. Aurretik, kritika ugari jaso zituen presidenteak bai aukeratutako tokiagatik bai egunagatik. Alde batetik, ekainaren 19a, hau da, esklabotzaren abolizioaren eguna, aukeratu zuen, gerora data aldatu zuen arren. Bestetik, Tulsako hiria hautatu zuen, 1921ean, AEBetako historian beltzek jasandako eraso arrazista nagusienetakoaren agertokia. Hori gutxi ez, eta covid-19aren pan-

Donald Trumpek porrot handia jaso zuen pandemia betean deitutako bere lehen mitinean, Oklahoman. «Milioi bat lagun» biltzea espero zuen arren, 6.200 inguru baino ez ziren agertu Tulsako deialdira. Eserleku huts horien atzean, K-Pop Koreako musikaren jarraitzaileak eta Tiktok sare soziala erabiltzen duten gazteak egon daitezke. Adar jotze izugarria edo aktibismo berria?



demia AEBak gogor kolpatzen ari den unean deitu zuen lehendakariak mitin jendetsua, kritika ugari jaso.

Mitinaren ondoren Trump «oso haserre» zela adierazi zuen NBC eta «New York Times» bezalako komunikabideek. Ez da harritzekoa, presidenteak harro hitz egiten baitu beti bere hitzaldietan biltzen den «jendetza izugarria» dela eta. Komunikabide kontserbadorek ere onartu zuten porrota. Ekitaldia hasi baino ordu batzuk lehenago, kanpoan hitzal-

dia jarraitzeko antolatutako ekitaldia bertan behera geratu zen, jenderik ez zela ikusita.

Baina zein izan zen porrota- ren arrazoia? Izan ere, inkestetan Donald Trumpen onarpen maila jaisten ari den arren, jarraitzaile sutsu ugari ditu edonon. Trumpen kanpainatik presidentearen kontrako manifestazioei eta komunikabideei leporatu zioten jendea mitinera ez joatea. «Manifestarietako sarrera blokeatu dute», adierazi zuen kanpainako ardura-dun batek. Kazetarietako, be-

rriz, ez zuten blokeorik ikusi, bai polizia eta militar ugari.

Adierazpenak adierazpen, ezusteko faktore batek eragin zuen Trumpen porrota: sake-lakoei lotuta bizi diren nerabeak eta K-Pop bezala ezagutzen den Koreako musika poparen fanak. Antza, Tiktok sare sozialeko erabiltzaile gazteek milaka sarrera eskuratu zituzten Tulsara joateko, bertaratze-ko asmorik izan gabe, hori bai.

Tiktokeko erabiltzaileak gazteak dira batez ere. Asko nerabe edota haurrak. Aplikazioak

bideo oso laburrak partekatze-ko aukera ematen du; pentsa, 3 segundokoak izan daitezke, minutu batera iristen direnak ere badauden arren. Bideo biralak, dantzak, akrobaziak, Fortniteko partidak... zabaltzeko erabiltzen dute aplikazioa gazteek, baina, badirudi, Tulsako mitinean ziri ederra sartu ziotela Tiktokeko erabiltzaileek AEBetako presidenteari. Nerabeen hitzetan, ederki «troleatu» zuten.

POLITIKOEK AINTZAT HARTU DUTE

Zaila da jakitea noraino iritsi zen Tiktokeko ekimenaren eragina. Baina AEBetako politikoei, adituei eta komunikabideei aintzat hartu dute milaka gazte daudela gertatukoaren atzean, hau da, sarrerak eskatu zituztela gero mitinera ez joan eta aulki hutsak nabari uzteko.

Steve Schmidt George W. Bushen kanpainan lan egin zuen Alderdi Errepublikanoaren estrategia da. Azaldu duenez, milaka gazte egin zuten bat Tiktoken zabalduetako erronkarekin, tartean bere 16 urteko alabak. Hamaika gurasok haien seme-alabek berdin egin zutela azaldu dute.

Alexandria Ocasio-Cortez kongresista demokratik Tiktokeko gazteak eta K-pop musikaren jarraitzaileak txalotu ditu Trumpen aurka egin izanagatik. Izan ere, TikToken zenbait bideo partekatu ziren mitina baino astebete lehenago gazteei lekuak erreserbatzeko deia eginez. Horrela zioen Trippmusic erabiltzaileak igotako batek: «To, pena litzateke jendeak jakingo balu Trumpen Tulsako mitinera joateko sarrerak dohain erreserba daitezkeela! Behar duzun informazio bakarra posta kodea da, hau da, 74103!». Bada, 18.000 aldiz partekatu zen mezua eta

200.000 “atsegin dut” jaso zuten di-da batean. Hasiera baino ez zen izan, Tiktoken nahikoa baita milioika jarraitzaile dituen edozein erabiltzailek horrelako erronka bat botatzea munduan zehar azkar batean hedatzeko. Youtuben edo beste sareetan gertatzen den bezala, jarraitzaile ugari dituzten hainbat erabiltzaile daude, eta, horietako zenbaiten ekimenez, milaka kontu hasi ziren sarrerak erreserbatzeko deia zabaltzen. Arazorik ez zuten izan 19.000 eserlekuko Tulsako aretoa Trumpen mitinean erdi hutsik uzteko.

KOREAKO POPAREN JARRAITZAILEAK

Kanpainaren bultzatzaile nagusietakoak K-Pop Koreako poparen fanak izan ziren. Koreako pop musika taldeetako jarraitzaile sutsuak dira eta haien gustuko bideoekin betetzen dituzte sare sozialak, *trending topic* ugari sortuz. Gerra birtualetako “armadak” bailiran defendatzen dituzte BTS, Exo, GWSN edo BlackPink bezalako taldeak. Oraingoan, baina, taldeon bideoak zabaltu beharrean, Trumpen mitina boikotatzea hartu zuten helburu.

Trumpen aurkako kanpainarekin, helburu komun bat dutenean sareetan duten indarra argi erakutsi dute K-Poparen jarraitzaileek. Ez da lehen aldia, gainera, gehienetan musikaz aritzen badira ere, azken hilabeteotan nolabaiteko “aktibismoa” jo baitute. Horrela egin dute, adibidez, AEBetako arrazisten kontra ekiteko edo Dallaseko Poliziak «legez kanpoko ekintzak» geratzeko herritarrei protesten grabazioak eskatu dizkienean.

Sareetan ez dute kontrako mezuekin edo iraineekin erantzuten K-Poparen zaleek, gus-



Ezkerrean, Donald Trump hitz egiten, erdi hutsik dagoen Bank of Oklahoma Center areotan. Goian, hiru gazte Tiktokeko sare sozialera igotzeko bideo bat grabatzen.
Nicholas KAMM-Philippe LOPEZ
| AFP

tuko bideo eta kantekin baizik. Eta milaka izan daitezke. Pentsa, Estatu espainolean ere egin izan dituzte kanpainak. GWSN taldearen jarraitzaileak den @gwsncity erabiltzaileak Voxen kontuak «mezu antifaxistez» betetzeko ekimena egin zuen Twitterren. Handik Whattsappera eta beste sareetara ere jauzi egin zuen. #fachaqueveofachaquefancameo edo #abascalprincesa izan ziren zabaldutako etiketak. Izan ere, Santiago Abascal Voxeko presidentea printzesa bat be-

zala apaintzea izan zen salaketa ekimenetako bat.

Bien bitartean, Trumpen hauteskunde kanpainako arduradunek ez dute onartu nahi izan Tiktok eta K-Poparen jarraitzaileak daudela Tulsako mitinaren porrotaren atzean. Esan dutenez, ezinezkoa da hori gertatu izana, sarrerak erreserbatu zituzten telefonozenbaki guztiak egiaztatu zitu zelako. Errepublikanoen arabera, espero zen jendetza ez zen agertu «manifestazioei beldurragatik eta komunikabi-

deek pandemiaren inguruan zabaldutako izuagatik». Horrela balitz ere, kezagarria litza-teke presidentek «milioi bat lagun» biltzea espero zuen ekitaldi batean hain lagun gutxi bildu izana...

Kontuak kontu, Tulsan gertatutakoa kolpe handia izan da Trumpen presidentetzarako kanpainarako. Datozen mitinetan indarra berreskuratzeko aukera izango du, kargua berritzeko gako diren estatuetan gainera: Florida, Arizona eta Ipar Carolinan. Ikusiko dugu zer gertatzen den.

Beste zalantza bat ere bada uneotan. Zergatik egin zuten Trumpen aurka Tiktokeko erabiltzaileek eta K-Poparen zaleek? Arrazoi ideologikoengandik? Egia esan, gehiago dirudi adar jotze izugarri bat, baina, emaitza ikusita, argi geratu da helburu aldakorrak izan ditzaket «borroka» eredu berriok mespretxatzerik ez dela.

Donald Trumpen hauteskunde kanpainako arduradunek ez dute onartu nahi izan Tiktok erabiltzaileak eta K-Poparen jarraitzaileak daudenik Tulsako mitinaren porrotaren atzean

Gazteok Trumpen mitinaren aurka egiteko zer arrazoi izan duten gorabehera, argi geratu da helburu aldakorrak izan ditzaket «borroka» eredu berriok mespretxatzerik ez dela



Oier Gorosabel - @Txikillana
Fisioterapeuta

Trigger puntuak

Duela oso gutxira arte (eta oraindik ere, hein handi batean), osagileon artean autoritate argudioa izan da nagusi. Nik fisioterapia ikasi nuen garaian, esate baterako, hainbat teknika horrela ikasi genituen: halakok esana zenez eta jakintsutzat hartu beharra zegoenez, emandako oinarriak buruz ikasi, eta aurrera. Azken urteotan, zorionez, teorien eta tekniken ikasketa arrazonamenduan oinarrituz doa, eta ez da nahikotzat ematen ospe handiko pertsona batek garatua izatea: plausibilitatea eta ebidentzia maila minimoa eskatzen dira, barrena. Dena den, baldintzok betetzen dituen jakintza-korpusa oraindik urri xamarra da, eta, beraz, lehengo sistemarekin ikasitako teoria eta teknika multzo handi bat dago. Horien artean dugu trigger puntuen teoria.

XIX. gizaldian, Europako zenbait medikuk (Balfour, Fro-riep, Strauss) muskuluetan aurki zitezkeen puntu mingarri bereizi batzuk deskribatu zituzten. Halere, trigger ize-na (euskaraz, “armaren katua edo txakurra”, hau da, “kakoa”) Janet Travell medikuak jarri zien 1942. urtean, deskribapena osatuz: nodulu edo banda gisa sentitzen ziren, haiek sakatzean tik motako erantzuna sortzen zuten, eta eremu batera hedatutako mina (min erreferitua) pizten zuten. Teoria interesgarria eta oso erabilgarria zenez, garapen handia izan zuen; eta arrakastaren topea 60ko hamarkadan heldu zen, Travell AEBetako lehendakariaren mediku pertsonala bihurtu zenean: Kennedyren “korapi-loak” askatzeko balio zuenez teoriak, modan jarri zen.

Muskulu bakoitzak bere hedapen eredu tipikoa zuen, eta Travellek bere liburuetan trigger puntuen kokapenaren eta min erreferituen mapa konplexuak argitaratu zituen; ikasleok eskuak burura eramaten genituen, hori guztia buruz ezin ikasirik. Bistan da, apunte eta liburu horiek gure lagunik onenak izan ziren, eta etengabe kontsultatu izan ditugu eguneroko lanean. Halere, denborarekin, konturatu ginen min erreferituen mapetan (hain politak, hain finkoak) salbuespenak asko zirela: arauak bezainbeste, ia-ia. Ezin konta ahala aldaera zeuden, eta, esate baterako, Travellek deskribatutako nodulu edo bandak oso gutxitan aurkitzen ziren. Nik neuk, nire bizitza profesional osoan, ez ditut sekula santan ikusi! Oso fisioterapeuta

txarra nintzela uste nuen. Baina hara non, azken urteotan eginiko hainbat errebisiok aurkitu dute ukipena ez dela fidagarria trigger puntu bat diagnostikatzeko orduan. Ez nintzen bakarra beraz!

Izan ere, teoria honen puntu ahulenetako bat horixe da: ez dago adostasunik trigger puntu bat diagnostikatzeko orduan. Balorazio tipikoak sintomak, min ereduak (mapak) eta eskuzko haztapena kontuan hartzen baditu ere, ikerlari bakoitzak bere erara aurkitzen ditu, ikerketaren balioa bera kolokan jarritz. Dena den, badira argi dauden gauza batzuk: trigger puntuetan azetilkolina, noradrenalina eta serotoninina neurotransmisoreen mailak altu aurkitzen dira, eta hidrogeno potentziala (pH), berriz, baxu; fuso neuromuskularrekin lotuta daude (muskulu osoaren kizkurdura behartzen duten zuntz bereziak), eta haien kizkurdura iraunkorrak odol zirkulazio lokala oztopatzen du; horretara, sentikortasuna areagotzen duten substantziak sortzen dira; eta horiek mina transmititzen duten nerbioengan eragiten dute.

Beraz, hemen dugu gure profesioan darabiltzagun teorien adibide tipikoa: badugu hor baleko terapia bat, baina ondo ezagutzen ez duguna. Hain zuzen ere, trigger puntuetan oinarritutako teoria berriak garatzen ari dira (puntzio lehorra, min miofaszialaren sindromea) eta pentsatzekoa da, denborarekin, hain erabilgarria den kontzeptu honen gaineko ebidentzia maila igo egingo dela. •

www.abante.eus



Trigger puntuen teoriak ospe handia dauka fisioterapian. GAUR8

{ asteari zeharka begira } **Ramon Sola**

Gorpuak kostaldera ekarri ohi ditu itsasoak, bai

Ez nuen ezagutzen, baina Juantxo Nafarrate hil dela jakitean gogora etorri zait bere izena. Interneten bilaketa eginda, hor ageri da zergatia: “Lasa-Zabala auziaren” epaiketan bere lekukotasuna entzuteko aukera izan genuen. Tolosako bi gazteek 1983ko urriaren 17rako, astelehenerako, zuten hitzordua Errefuxiatuen Batzordeko ordezkaria zen Nafarraterekin, baina bi egun lehenago bahitu egin zituzten, larunbat gau batean, eta auskalo noiz erail...

2000. urteko epaiketa haren testuingurua iluna, oso iluna, izan zen. Auzitegi Nazionalaren pasilloetan gora eta behera zebilen zenbait guardia zibil, bai eta jeneral aski ezagunen bat ere, deklaratu behar zuten lekukoei aurrez aurre mehatxu eginez. Are gehiago, legez babestutako lekuko bat bahitu, gorputza zigarroz erre eta bortxatu ere egin zuten aurretik Intxaurrendoko auzipetuen alde ari zirenek.

Oraindik latzagoa izango zen Jesus Garcia Garciaren patua: Alacanteko komisarioa izan zen hamar urte lehenago Busoten agerturiko hezurak Joxean eta Joxirenak izan zitezkeen susmoa

agertu zuena... bai eta asmatu ere. Ikaraturik ekin zion epaimahaiaren aurreko deklarazioari eta ez zuen bukatzerik izan: bihotzekoak jota bertan hil zen. Nik dakidala, Garcia Garciaren heriotza eta aurrekariak ez dira inoiz ikertu: *muerte natural* gisa jo zuten Madril aldean, Gurutze Iantzi eta beste euskal herritar askorena bezala. Iantzi Madrilgo Tres Cantosko komisarian bizi-rik sartu eta hilik atera zen. Nafarrateren izenarekin gertatu bezala, Tres Cantos izenak ere orain gutxi jo dit berriz belarrian, Diego Perez de los Cobos koronelaren kargugabetzea dela eta, Gobernuak eginiko pandemiaren kudeaketa kriminalizatzen saiatu ostean. Aurretik, Kepa Urria Bilbon torturatzeagatik epaitu zuten Perez de los Cobos. Errugabe jo zuten, baina zigortu izan balute ere, ez zen hori Barne Ministerioan aritzeko ozto-

po izango, torturatzaile deklaratu ondoren Manuel Sanchez Corbi UCoko buru izan baita. Biak kargugabetu ditu azkenik Grande-Marlaskak, baina ez torturagatik jakina; ez al zen ba oraingo Barne ministroa Igor Portu eta Mattin Sarasolari eginikoaren aurrean ez ikusiarena egin zuen epailea? Giza Eskubideen Europako Auzitegiak berak horrela baieztatu du.

Krimen horiek eta beste asko diru publikoa erabilita finantzatu direla salatu dute Nagore Otegik eta Ane Muguruzak NAIZ Irratian. Angel Duce poliziakidea zigortu zuten Josu Muguruza tiroz hiltzeagatik. Muguruzaren lagun min-mina zen Nafarrate, portzierto. Eta “istripu” batean hil zen Duce, kartzelatik sei eguneko baimena lortuta kalera atera bezain laster. Tiro egin zuen bigarren erasotzailea nor izan zen argitu gabe.

Sokatik tira eta tira eginda etengabea da argitu gabe dagoen gerra zikinaren katea... eta irentsi nahi ez duena gero eta higuigarriagoa egingo zaio Estatuari

Dibagazioak dira orain artekoak, noski. Kontua da soka horretatik tira eta tira eginda etengabea dela argitu gabeko gerra zikinaren katea. EAJko politikari bati entzun diot itsasoak hildakoak beti itzultzen dituela kostaldera, eta horrela gertatu dela dirudi ezagutu berri dugun CIAren txosten zaharrarekin. Politiko berberak kontatu duenez, 1995ean Senatuan GALi buruzko ikerketa batzordea abiatu zenean, sutan hurbildu zitzaizkien PSOEko agintariak EAJko ordezkari, azalpen eske: «Kaka ahoan sartu nahi diguzue». Ezaguna da batzorde hark bide motza izan zuela, aste honetako saiakerak baino are motzagoa. Baina bistan da gorpuek kostaldera iristen segituko dutela, herri honek gorpuok ez urperatzea ez lurperatzea onartu ez duelako. Eta bistan da ere irentsi beharrekoa gero eta higuigarriagoa izango dela. •

KANPAINA, PANDEMIA ETA UDA

Krisialdiari erantzuteko ereduak hautagai

 POLITIKA / Nerea GOTI

EAEko hauteskunde kanpaina arraroa izango da aurtengoan edonondik begiratuta. Ezagutzen ez zen konfinamendu baten ondoren dator, pandemiaren erdian oraindik eta, lehen aldiz, deskonektatzeko erabili ohi den uda garai betean. Hori horrela, kanpaina diseinatzeko elementuak aletu ditu GAUR8k Gasteizko Legebiltzarreko lau indar nagusiekin. Jada gure artean dugun krisi sozioekonomikoari aurre egiteko ereduak izango dira trakzio elementu nagusiak eta teknologia berriak mezuak helarazteko tresnak. Hori bai, aurrez aurreko formatuak ez dira guztiz desagertuko.

“Euskadi Zutik ¡Saldremos!” leloa du EAJren hauteskunde kanpainak eta Sabin Etxeko makineria topera dago lanean jada egunotan. Argi dago hauteskundeok ezberdinak izango direla, eta covid-19ari aurre egiteko segurtasun distantziek, maskarek, gelek eta edukiera kontrolek isla izango dutela ezinbestean. Baina, hala ere, EAJn tradiziozko formatu baten aldeko apustu sendoa egiten dute, kanpainaren martxaren egunerokoari begirik kendu gabe. «Ez dugu kanpaina telematikorik nahi. Ez diogu ekitaldiak egiteari uko egingo», nabarmendu du Iñigo Iturrate jeltzaleen kanpainaren arduradunak.

Gizartea kaleak berreskuratzen ari den honetan, «gu ez gara etxe barrura sartuko», azaldu du bitarteko telematikoak nagusitzeko aukeraren inguruan galdetuta Iturratek. Hala ere, nabarmendu du aurreko kanpainetan bezala, EAJren agerraldi publiko gehienak sareetan jarraitu ahal izango direla. Gaineratu duenez, beharrezko neurri guztiak hartuta, asmoa da herritarrengana hurbiltzea eta hauteskundeen mezua espazio publikora eramatea. Horregatik, helburua «ahal den neurrian kanpaina kalean egitea» da; hau da, aurrekoetatik ahalik eta gertuen dagoen kanpaina bat egitea. Hala ere, egoera konplexua da. Iñigo Iturratek onartu bezala, osasun larrialdiak hauteskundeen antolaketa baldintzatu du erabat, batez ere «denboren kudeaketari» dagokionez. «Guk, normalean, kanpaina hasi baino hilabete lehenago kanpaina antolatuta daukagu, ekitaldiak ia guztiz erabakita; zer egin, non, egitura eta

IÑIGO ITURRATE EAJ

«Egunez egun aztertu, ebaluatu eta birplanteatuko dugu egoera»



EAJ

programa osoa amaituta izaten dugu. Kasu honetan kanpaina faseka joan gara antolatzen, eta, gauzak aldatzen joan diren heinean, antolatzen eta erabakitzen joan gara», azaltzen du.

Egoerak duen «probisionaltasuna» eta «aldakortasunari» begira ere badago EAJren antolaketa taldea. «Badaukagu aurreikuspen bat, baina badakigu gauzak egun batetik bestera alda daitezkeela.

Egunean-egunean pentsatu beharko ditugu gauzak, ikusita jendearengandik zer erantzuna dagoen, zenbat jende hurbiltzen den, zelango zailtasunak dauden... Egunero-egunero aztertu, ebaluatu eta birplanteatuko dugu egoera».

Formatu eta euskarriei dagokienez, eskura emateko propaganda gutxitu egin dute, kontaktu horiek saihesteko.

«Eskuorriak eta boto paperak izango ditugu kalean. Mahai bat jartzen badugu, jendeak hartu ahal izango ditu, baina gu ez gara ezer ematera joango», aipatu du.

Jeltzalearen esanetan, «ekitaldien irudiak gure mezuarekin eta egoerarekin bat egin nahi du, eta, ildo horretan, eraikitzen dagoen errealitate bat irudikatu dugu». Plano horretan, mezuak «orain eta beti» izan duen lehen mailako garrantzia aldarrikatu du. Nabarmendu duenez, «mezuak momentu bakoitzean dauden kezka, buruhauste edo pentsaerei» erantzun behar die. «Pandemiak gogor jo du gure izaeran, gure bizimoduan, ondorio zuzenak utzi ditu guztiongan, osasunaren aldetik, ekonomiaren eta enpleguaren ikuspegitik, eta ziurgabetasunak mezua baldintzatzen du», gaineratu du. Pandemiak gizartearentzat suposatu duen «astinaldiaren» ondoren, «gure herria zutik jarri behar dugu, zerbitzu publikoak eta pribatuak martxan jarri behar ditugu, enplegua berdin... Hori guztia berreskuratzea da helburua».

Gaixotasunak eta udako desconexioak ez du kanpainako lana erraztuko, baina Iturratek uste du, norberak bizi izan duen esperientziatik harago, «herri gisa ere asko pasatu» dugula, «eta horrek talde izaera indartzen du, horregatik, auzolanerako deia egiteko une aproposa da». Azken mezu bat ere utzi du Iturratek: «Krisi larri eta une latz asko pasatu ditugu lehenago ere, eta honetatik ere aterako gara denok elkarrekin. Gure kasuan, gure esperientzia, gure nortasuna eta gure lanerako grina gizarteari helarazteko gogoz daude».

LARRAITZ UGARTE EH BILDU

«Ikus-entzunezko euskarri gehiago jarri dugu jende gehiagorengana heltzeko»

«Jendea ilusionatzea eta aktibatzea» dira kanpainen erronka nagusiak, baina ate joka duguna ez da ohiko kanpaina bat. «Atipikoa» da konfinamendu baten ondoren eta pandemia baten erdian heldu delako, baita lehen adiz uda garaian egingo delako ere. Horiek dira Larraitz Ugarte EH Bilduren kanpaina arduradunak deialdi honi ikusten dizkion gako berezietako batzuk. Hala ere, herrietan «jendea animatuta» ikusten dute kanpainari aurre egiteko; koalizioa «gora doan indarra» dela badakite, baina abstentzio zer-nolakoa izango den da uneotan duten «inkognita» handia.

Maddalen Iriarte lehendakarigai duen koalizio subiranistaren kanpainak «Egiteko prest» du lelo nagusia. Ahalik eta herritar gehienengana heltzeko, EH Bilduk «euskarri teknologiko gehiago» erabiliko dituela azaldu du Ugartek: «Ikus-entzunezkoen aldeko apustua egin dugu, bai paretetan bai herrietan euskarri gehiago jarriko ditugu, herrietan bueltaka ibiliko diren beste elementu batzuk... Jendearengana hurbiltzeko saiakera berezia egingo dugu». Aldi berean, teknologia berriek pisua hartu dutela egiaztatu du. «Ikusi dugu ez dugula hainbeste mugitu behar eraginkorrek izateko eta teknologiek horretan laguntzen dutela; ez dituzte eztabaida markoak ordezkatzen, ezta aurrez aurreko harremanak ere, baina jarraipen handia dutela egiaztatu dugu».

Kanpainan elementu asko dira garrantzitsuak, eta «denek daukate eragina», bere ustez. «Mezua, antolakuntza, koordinazio lan handia, estrategia izatea, errealitate politikoaren azterketa ona egitea eta jendearekin konektatzea» aipatu ditu, besteak beste. Nabarmendu du herritarrek dituzten «kezka eta beharrei» erantzuteko premia dagoela, eta eskaintza hori landua eta «tasatua» izan behar dela, «garatu ahal izango duzuna eta hurrengo lau urteetako zure lanaren gida izango dena».

Testuinguru horretan kokatu du Ugartek programaren garrantzia. Planteatu duenez, bizi dugun egoera ez da edonolakoa, ez da «paradigma aldaketarik» egon, eta, ildo horretan, «koalizioaren planteamendu programatiko asko eta errealitateaz eginiko analisisa ez dira aldatu», aldaketa «lehentasunen hierarkian» eman da. Zehaztu duenez, koalizioak beti defendatu du «sektore publiko indartsu» bat izatearen beharra, eta behar horrek «intentsitate handiagoa» hartu du orain.

Ugarteren ustez, osasun krisialdiak, Zaldibarreko zabortegian gertatutakoak, egoitzen kudeaketarekin gertatutakoak... egungo ereduaren ahuleziak erakutsi ditu: gizartearen begien aurrean jarri du «enpresa pribatuekin baina diru publikoarekin eta kontrol publikorik gabe lan egiten duen administrazio baten funtzionamendua».

«Planteamendu programatiko asko ez dira aldatu, baina bai lehentasunen hierarkia: beti defendatu dugun sektore publiko indartsuaren beharrak intentsitatea irabazi du»

Horrez gain, egoera ekonomikoaren larritasuna aipatu du. «Orain bagaude parentesi moduko batean, ziur aski hauteskundeak egitearekin oso lotuta dagoena. 68.000 lanpostu galduko direla esan dute, baina, gure aurreikuspenen arabera, 100.000 galduko dira eta horrek neurri berriak eskatuko ditu, lehentasunak enpleguan eta jendea babesteko. Horregatik plan berezituak egin ditugu».

Mezua plazaratzeko moduari dagokionez, Ugarteren ustez covid-19ak erakutsi du «kultura demokratiko eskasa daukagula». «Hor daukagu irrati-telebista sistema publiko bat Jaurilaritzaren eta alderdi zehatz baten beharren arabera funtzionatzen duena. Horrekin lan egin behar izan dugu azken hilabeteotan; EAJren tesi guztiak izan dira mahai gainean eta besteok aukera oso eskasak izan ditugu».

«Kanpaina honetan lehia nagusia argia» dela uste du, «bi

proiektu politikoren arteko lehia da, edo orain arteko errezetak edo gauzak beste era batera egin daitezkeen konfiantza eragin dezakeena», nabarmendu du.

Bestalde, covid-19arekin lotuta, hautagaiek eredugarri izan behar dutela uste du Ugartek, hau da, ekitaldietan gorde beharreko distantziak, edukierak eta osasun protokolo guztiak zorrotz bete behar dituztela. Aurreko deialdirako aurreikusita zeuden formatu eta euskarri batzuek baliogarriak izaten jarraituko dutela uste du, baina berriak eta ezezagunak diren faktore asko ere izango dira. «Euskarri batzuek balio digute, baina, esaterako, herri honetan ez da berdina hauteskundeak apirilean edo uztaillean izatea, eta horretara moldatu behar izan ditugu formatu batzuk. Zentzu batean errazagoa izan da agian, baina egokitzen txiki asko egin behar izan ditugu ordutegiekin, oporrekin...», amaitu du.



Javier Ezkerekotzak Donostiatik erantzun du GAUR8ren telefono deia, Elkarrekin Podemos-IUk diseinatu duen hauteskunde kanpaina bereziaz hitz egiteko. “Gobernatzeko prest” leloa du Miren Gorrotxategi lehendakari gai duen koalizioaren kanpainak. Ezkerekotzak aipatu duen lehen ideiak ekitaldiak egiteko espazioen kudeaketa konplexuarekin du zerikusia. «Guk gure buruari zenbait iragazki ezarri dizkiogu eta saiatuko gara oso edukiera mugatuekin gauzak egiten, baita oso gauza gutxi egiten ere», zehaztu du. «Arazo nagusia da ekitaldiak murriztu behar dituzula, eta, horietako asko, aurrez aurre jendea hartzera baino, komunikabideen bitartez edo sareetan oihartzuna lortzera bideratuta daudela».

Bitarteko telematikoen aldeko apustu garbia da Elkarrekin Podemos-IUren kanpainaren ezaugarri nagusietako bat. «Konfinamenduan zehar hitzaldiak egin ditugu, formakuntza izaerakoak batez ere, eta ohiko mintzaldi arrunten ikusle kopurua hirukoiztu dugula antzeman dugu; ohiko hitzaldi batera 50 edo 100 lagun joaten baziren, orain 150-200 lagun izaten dira Internetera konektatuta. Ekitaldira bertaratu ezin duenarentzat ere aukera bat da, aurrez grabatutako saio bat jarraitzeko aukera dagoelako», komentatu du.

Ezkerekotzaren ustez, covid-19ak hainbat ohitura aldaketa azkartu ditu, eta teknologia berrien erabilera da horietako bat. «Bagenekien guztiok berandu baino lehen era ez tradizionalan lan egiten hasiko ginela, teknologia dagoeneko gure artean dagoelako eta erabiltzen eta aprobetxatzen jakin behar baita. Pandemiarekin behartuta



Gorka RUBIO | FOKU

JAVIER EZKEREKOTZA ELKARREKIN PODEMOS-IU

«Bitarteko telematikoak nagusitu dira; jarraipena hirukoiztu ere egin daiteke»

sentitu gara eta ekin diogu», nabarmendu du. Onartu duenez, «zerbait berria denean, beldur puntu bat dago, baina kasu honetan betebeharra zen, ez zegoen beste aukerarik eta frogatu dugu emaitza tradizionalki egiten genuenarena baino askoz hobea ere izan daitekeela».

Kanpainako ekitaldien jarraipenaren kontura, aipatu du edukiera aurretik mugatzeko formuletan ari direla lanean. «Bertaratzen denak jakin behar du agerraldira sartu ahal izango duen edo ez, alperrik joan ez dadin. «Oreka bilatu behar dugu jende pilaketak saihesteko», nabarmendu du.

Kanpainan gogor baldintzatuko duen

aldagaietako bat da herritarren kutsatzeko beldurra izango da zalantzarik gabe. Horregatik, osasun neurriak zorrotz betetzearen garrantzia azpimarratu du. «Arauak betearazi behar ditugu, zoritxarrez nahiko gauza desegokiak ikusten ari garelako».

Bestalde, mezuari berari eman dio garrantzi berezia Ezkerekotzak. Bizi dugun egoera berezia barneratuta, Elkarrekin Podemos-IUn «jendea ilusionatzen eta arduratzen» saiatzen ari direla azaldu du: «Aurrez aurre ditugun arazo larrientzako soluziobideetan sakonduko duen eredua eratzea da helburua. Hori da erabiliko dugun elementu nagusia, ez

«Aurrez aurre ditugun arazo larrientzako soluziobideetan sakonduko duen eredua eratzea da helburua. Hori da erabiliko dugun elementua, ez dago besterik»

dago besterik», adierazi du. Ideia horrekin lotuta, donostiarrak onartu du ilusioa pizteko une zaila dela: «Hauteskunde hauek duten garrantzia zalantzak jartzerik ez dagoen arren, jendeak beste arazo batzuk baititu buruan uneotan. Gertatuko denaren aurreko kezka dago batetik, eta, bestetik, deskonektatzeko gogo; bizitakoaren ondoren burua oporretan du jendeak eta horrek eragina izango du».

Ezkerekotzaren iritziz, «kalean antzematen da desajuste eta desblokeo moduko bat dagoela», eta horrek gauzak asko zailduko dizkie alderdi guztiei kanpainan zehar. «Jende askok hauteskunde dinamikan sartzeko zailtasunak izango dituela agerikoa da». Gogoratu duenez, pertzepzio hori izan zen, hain zuzen ere, deialdia une honetan ez egitea eskatzeko arrazoia, ez zutelako ikusten une egokiena zenik.

Hala ere, hauteskundeak uztailaren 12rako deitu dira eta errealitate horretara egokitu beharra dagoela dio Ezkerekotzak. Horregatik, «beti garrantzitsua den leloak», hauteslea konektatu behar duela aipatzen du, «problematika sozioekonomikoa ikustaraziz». Dioenez, herritarrek jabetu behar dira jokoan dagoela hurrengo lau urteetako egoera. «Hauek ez dira hauteskunde normalak. Hitz egiten ari gara soluziobiderako proiektu baten garapenaz, eta proiektu horrek benetan gehiengo soziala defendatzen duenaren esku izan behar du», nabarmendu duenez. Euskal herritarrek duten «kultura politikoa» eta erakutsitako «arduran» du «itxaropena», jokoan bizitza proiektuak daudelako.

Miguel Angel Morales buru duen lantaldeak gidatuko du Idoia Mendia PSEko lehendakari gaiaren kanpina, “Soluciones. Erantzunak” lelopean. Kanpaina diseinatzen ibili den taldeak aipatu kanpainaren hasiera dataren inguruko «ziurgabetasunak» eragina izan duela euren lanean. «Aurreikus zitekeen noiz izango ziren hauteskundeak, baina ez geunden %100ean seguru». Behin hitzordua jarrita, ekitaldien edukierari eta mitinetan gorde beharreko segurtasun neurriei lehentasuna emateko ordua iritsi da; osasun egoerak ekarriko dituen aldaketak aldaketa, ohiko formatuko agerraldiak alboratuko ez dituztela aurreratu du Moralesek.

PSEn bi ekitaldi mota aurreikusi dituzte. Batetik, Idoia Mendia lehendakari gaiak beste hautagai batzuekin eginikoak, «izaera sektorialagoa» dutenak, osasungintzaren, hezkuntzaren edota industriaren ingurukoak, besteak beste. Bestetik, ekitaldi handiagoak ere aurreikusten dituzte, Pedro Sanchez Gobernu espainoleko presidentearen parte hartzea izango duten hitzorduen gisakoak. «Lehenak errazagoak dira antolaketaren ikuspuntutik, espazio txikiagoetan egiten direlako, ia publikorik gabe, gehienbat komunikabideentzat. Ekitaldiotan segurtasun distantziak gordetzea izango da zaindu beharrekoa. Beste ekitaldiak, parte hartze handikoak, konplikatuagoak dira orain; edukiera kontrolatu beharko dugu, publikoa jazarrita egon beharko da...», azaldu du Moralesek.

Ekitaldi handiago horietan parte hartzea kontrolpean izateko formulak aztertzen ari dira, eta, militantziari egin ohi zaion deialdi zabala egin beharrean, bertaratuko diren horiei zein ordutan eta zein baldintzak betez

MIGUEL ANGEL MORALES PSE

«Ikusi dugu teknologia berriek erantzun ona dutela; trebezia berezirik ez dutenen artean, Whatsappak»

«Erlaxamendu puntu bat dago, baina inkesten arabera abstentzioa ez da batzuek aurreikusitakoaren tamainakoa izango. Gainera, posta bidezko botoak interesa badagoela erakutsi du»

egin behar duten jakinarazteko bideak aztertzen ari dira. Kanpaina hasi aurreko ekitaldia Gasteizen egin zuten, «eta entsegu baten modukoa» izan zen. Hesiak baliatu zituzten espazioak mugatu, sarbideak kontrolatu eta parte hartzaileei jarraibideak emateko.

Pandemiak eragindako egoera bereziak edo hauteskundeak udan lehen aldiz egiteak zailtasunak ekarriko baditu ere, Moralesek uste du «ariketa demokratiko ona» izango dela guztiontzat. «Kanpaina uneotan nola egingo dugu esaten da, baina guk uste dugu alderdiek beraien programak eta proposamenak

plazaratzea ariketa demokratiko bat dela. Gainera, inkesten arabera, abstentzioa ez da izango katastrofista batzuek aurreikusitakoaren tamainakoa», aipatu duenez. Horren inguruan posta bidezko botoa asko igotzen ari dela nabarmendu du Moralesek. «Horrek adierazten du jendeak bozkatzeko interesa daukala, interesik egongo ez balitz, jendea ez litzateke tramitea egiteaz kezkatuko».

Berez ez dira baliabide berriak, baina, bizi dugun egoeran, bide telematikoez pisu handiagoa izango dute PSEren kanpainan. Konfinamendua arintzen hasi aurretik, mugikortasuna oraindik

mugatuta zegoenean, alderdikideak hasi ziren jada Skype edota Zoom moduko erremintekin bideokonferentzia bidezko bilerak edota konferentziak egiten. «Ikusi dugu oso erantzun positiboa dutela. Pedro Sanchezen Donostiako ekitaldian, esaterako, 150 lagun elkartuko dira, baina jende askok ekitaldia jarraitu nahi izango du eta guk aukera eskaintzeko ahalegin hori egingo dugu», adierazi du Moralesek.

Lantaldean Whatsapparen garrantzia nabarmendu dute. «Oso ondo funtzionatzen du teknologia berrien erabileran oso trebeak ez diren lagun askoren artean». Diotenez, sare sozialek ondo funtzionatzen dute, baina «benetan funtzionatzen duena ezagun batek bidaltzen dizun bideo hori da, artxibo hori lortzeko ez delako beharrezkoa sareetako militantzia hori».

Mezuaren inguruan, Moralesek nabarmendu du ez zutela programa aldatu nahi izan, baina, hori bai, “Berreraikitze oinarriak” izenburudun dokumentu bat plazaratzea erabaki dute epe laburrean, hau da, «hemendik abendura», hartu beharreko neurriekin. Osasungintza, automobilgintza edota ikerketa eta formakuntzari lotutako neurriak izango dira kanpainako ardatzak, eta, horrez gain, «egin dugun kudeaketa defendatuko dugu, Gobernu zentrolean eta Eusko Jaurlaritzan egin duguna. Horretan ez da aldaketarik egon aurreko deialditik honetara».



PSE



Juan Carlos RUIZ | FOKU

IKUSMIRA


MASKAREN GARAIA, POLITIKA BEGIETARA BEGIRA

Maskaren garaian, ahoak ikusezin. Begietara begira asmatu behar da parekoaren irria edo muturra. Ari-keta dibertigarria gerta daiteke hasieran, berritasunagatik. Baina azkar bihurtzen da nekagarri eta az-toragarri, egonezin iturri. Hauteskunde garaian, paretak artean mutu, maskara jantzia balute bezala. Promesa ponpoxoak baino, konpromiso sendoak hobe. Inoizko biluzien sentitu garen honetan, ez gau-de txorakerietarako. Badakigu zer den beharrezkoa, ezinbestekoa, oinarrizkoa; osasuntsu egon nahi du-gu jendarte osasuntsu eta justu batean. Paretak biluzik daude argazkian, hainbeste herritar bezala. Maskaren garaian, politika begietara begira egiteko garaia da, jendarteari benetan behar duena eta me-rezi duena emateko lan egiteko garaia. Amagoia Mujika Telleria



Alai
ZUBIMENDI

iRRITZIA:



7^h haizetara

BIDAIA ALDIZKARIA

DATORREN OSTIRALEAN ZURE KIOSKOAN SALGAI



ITALIA

Turismoaren sorosle

Europako lehen herrialdea izan zen pandemiaren zigorra pairatzen. Turismoa berreskuratzeko, sustapen-neurri eta deskontu ederrak eskaini dituzte; esaterako, Sizilian eta Venezian.

Eta gainera: Maliko Dogon herria, izarrei so • Indian barrena, maharaja baten pare eta trenean • Aizkorri, euskal mendizaletasunaren tontor kutunenetakoa

HARPIDETU • 11 ALE 15€ URTEAN
WWW.ZAZPIHAIZETARA.COM

1,5€
7^h haizetara

ZURE BIDAIA ALDIZKARIA
EUSKARA HUTSEAN



> «Gora herrixa», Arrasateko merkatariekiko elkartasuna

The Potes talde arrasatearrak Negu Gorriak taldearen “Gora Herria” abestia bertsionatu du. Arteman komunikazio enpresarekin elkarlanean eta 18 merkatariekin, bideoklip bat egin dute herriko saltoki txikiei bultzada emateko asmoz.

«Gaur egindako agerraldian jakinarazi dute covid-19ak eragindako krisiaren ondorioz, Euskal Herriko saltoki, taberna, jatetxe eta bestelako zerbi-

tzuen %30ek ez dituztela berriro ateak zabalduko; 10etik 3k, hain zuzen ere». Irratian datu deigarri horiek esanez hasten da Arrasaten herriko merkataritxiki eta ostalariak bultzatzeko egin duten bideoklipa.

Bideokliplean beste kultura eragile eta musikariek ere hartu dute parte. Orotara, 18 negoziok hartu dute parte herriko merkataritzari bultzada ematea xede duen ekimenean.



> «Eskailerapeko», Karmele Jaioek itxialdian jositako fabula

“Zirriborroak eta gero. Kontakizunak eta fabulak mundu posiblei buruz” proiektuaren baitan argitaratutako hirugarren alea da Karmele Jaioen “Eskailerapeko” sorkuntza. Proiektu horrek hainbat idazle gonbidatu ditu etorkizuna irudikatzen: nolakoa izango litzateke gure bizitza Arabako pertsona, kolektibo edota enpresa jakin batzuk erronka ekologiko, ekonomiko, kultural, sozial eta abarri erantzuteko proposatzen dituzten alternatibak hedatuko balira?



Arabari eskainitako bilduma-ko fabula berri honetan, Karmele Jaio covid-19 gaitzak aktibatutako zaintza sareetatik abiatzen da, bere egunerokotasuna auzo harreman eta zaintzen inguruan oinarritzen duen etorkizuneko eraikin bat irudikatzeko. Hartara, pandemia baino lehen jada arriskuan zegoen gizatalde baten istorioa da, artilea lehentasunezko produktu bihurtu zeneko istorioa. «Maitasun istorio bat», egilearen hitzetan.



> Adingabe transexualen garapen psikosozialaz

Trantsizioa egin duten adingabeen errealitatea deskribatzea helburu, azterketa bat abiatu du Euskal Herriko Unibertsitateko ikerlari talde batek, eta azterketa globalaren lehen zatia- ren datuak ezagutarazi ditu.

Datu horien arabera, neska, mutiko eta gazte transexualen sexu identitatea ez bada onartzen eta horretan ez bazaie la-

gun egiten, kalte larriak izan ditzakete identitatearen garapenean.

Ikerlanean egiaztatu duteenez, amek babes handiagoa eskaintzen dute trantsizioaren aurretik eta ondoren. Hala ere, trantsizioa egindakoan, oro har, familiaren, lagunen eta eskolakideen babes handiagoa sumatzen dute.





Gorka Etxebarria Dueñas
Historialaria

Izenik ez duen ezinegona

ndarrak bildu beharko dira abuztutik bueltan kurtso berriari ekiteko eta omen datorren krisialdi ekonomiko sakonari ausardiaz erantzuteko. Omen diot; izan ere, kontuan hartu behar dugu kapitalismoan etengabe errepikatzen diren bi faseek, hazkundeak eta krisiak, oinarriko elementu psikologiko bat dutela. Krisia datorrela errepikatzen bada etengabe, ziur krisia etorriko dela, guztiok balizko etorkizun horren arabera hartuko baititugu gure erabaki ekonomikoak.

Ez dut horrekin esan nahi lana galdu duten edo beren negozioetan galera handiak izan dituzten pertsonen eta familien egoera ez dela erreala eta izugarri larria kasu askotan, baina bai ez duela zertan krisi ekonomiko batek etorri derrigor. Pentsa bestela zer nolako garai oparoak bizi izan ziren Lehen eta Bigarren Mundu Gerren ondoren Europako mendebaldean. Krisiari beldurak gure kritiko izateko gaitasuna ahultzen du, argi pentsatzeko ezintasuna dakarkigu eta inondik inora kaltetu ez den eliteari ekinbidea eta abantaila hartzeko aukera ematen dio, gehiengoaren interesen eta bizi baldintzen kontura. Beraz, ondoriozta daiteke zein garrantzitsua den norbanakook gure kabuz pentsatzeko gaitasuna sendotzea eta gure iragana ezagutu eta ulertzea.

Azken hilabeteetan inoiz baino gehiago elitearen propagandista erabatekoa bihurtu den Eusko Jaurlaritzak bere obsesio eta aurreiritziak hezkuntza komunitatera ere bideratu ditu. Apirilaren erdialdean, DBHn ikasleek lortu beharreko minimoen zerrendak bidali zizkiguten irakasleei. Harritu ninduen minimo horiek hain argi adieraztea elitearen obsesioak: fisika eta kimika, matematika eta hizkuntzak. Besterik ez. Eliteak behar duen bakarra ferreteroak eta aginduak

hizkuntza ezberdinetan ulertzen dituzten langileak dira. Jakintza instrumentala, aginduak ulertzea eta horiek aurrera eramateko tresnak erabiltzen jakitea. Ez dezatela kontzeptu zehatzik jakin (teoriarik ez omen da behar, praktika bakarrik), ez dezatela mundua ulertzeko oinarriko jakintzarik eduki. Kontua da praktika eta jakintza instrumentala ez direla neutroak. Ez direla objektiboak. Baina hori besteak beste filosofiak eta historiak erakusten digute. Filosofia eta historia ez dira berriaz beharrezkoak arrautza bat frijitzeko edo makina bat konpontzeko. Baina bai jakiteko zergatik ari zaren arrautza bat frijitzen edota makina bat konpontzen.

Irudipena dut hemendik eta hurrengo hilabeteetan sentipen bat zabalduko dela. Jendea ez da gustura egongo. Baina ez du jakingo ondo zergatik.

Gaizki omen dago mundua. Bai, horrela omen da mundua. «Omen... ni prestuki laneko aginduak betetzera mugatzen naiz, ez dut indarrik eta gogorik horren inguruan pentsatzeko». 1950eko hamarkadako emazteek ere antzeko zerbait sentitu zuten. Etxeko andrearen lanak ez zituen asetzen pertsona bezala, baina horri zen emakumeen rola, ezta? Betty Friedanek «izenik ez duen ezinegona» deitu zion. Izan ere, emakume horiek ez zuten ezagutzen aurreko hamarkadetako olatu feminista. Ez zuten imajinatzen zein bizipen interesgarriak izan zituen XII. mendean Leonor Akitaniakoak, aristokraziaren botere borrokan eta geopolitikan emakume batek izan zezakeen garrantzia. Politika, filosofia eta historia gauza arrotzak ziren. Gaur egun sinetsarazi nahi diguten modu berean. Uler daitekeenaz bestera, filosofia eta historia biziki instrumentalak dira gure egunerokotasuna ulertzeko, gure kabuz pentsatzeko eta gehiengoaren interesen kontra ari direnei eta beraien ekinbideari izena jartzeko eta aurre egiteko. •



Ilustrazioa: Jonbi EGURTZEGI

{ koaderno } Amaia Nausia Pimoulier

Terrazadun etxeen bila

Konfinamenduaren hasieran, alarma egoeraren ondorioz konplexurik gabe argia ikusi zuten barne inkisidore guztiei buruz idatzi nuen hemen bertan. Ez zen beharrezkoa izan tankeak kalera ateratzea, nahiz eta militarrek Nafarroako kaleetatik harrotasunez ibili, ordena eta legea ezartzeko. Ikusi dugu zein erraza den gizarte oso bat kontrolatzea beldurraren agindupean. Askok doan eskaini zuten beren burua inkisidore lana egiteko. Sorgin ehizan bezala, auzokoak berak ziren beren parekoak kontrolatzen, epaitzen eta salatzen zituztenak. XVI. mendean, salatzaileak ez zuen aurpegia eman behar horrelako zalantza marka beste pareko bati ezartzeko. Gaur etxeko leihotik sakelakoarekin argazki bat bota baino ez du egin behar salatzaileak, erruduna lotsa publikoan zigortzeko.

Niretzat, zalantzarik gabe, zenbat inkisidore zeuden ikustea izan da egoera honetako gauzarik zailenetarikoa (osasun kontuak alde batera utziz, noski). Sistemak nahi duen tokian zein erraz gaituen ikusteak barrukoak mugitu dizkit. Egia da sormena ere martxan jarri dela eta balkoi naziei abesti, me-me eta mezuekin erantzun zaiela sare sozialetan, askatasuna, komunitate zentzua eta klase elkartasuna aldarrikatuz. Eskerrak.

BADIRUDI DENA ONGI EGONEN DELA

Orain badirudi udako beroek histeria kolektiboa lasaitu dutela, kontsumoak agintzen du, noski, eta terrazak bisitatzen ditugun bitartean, oporretara joan, gure erosketa erritmoa mantendu eta lanera joaten jarraitzen dugun bitartean, dena ongi egonen da. Badirudi jendeak onartzen duela udazkene-

an berriro giltzapetuko gaituztela; beraz, ustezko udazkeneko itxialdiaren aurrean, terraza, patio edo belardia duten etxeak bilatzea da kontsumitzeko joera berria.

Benetan? Hain erraz onartuko al dugu berriro giltzapetzea?

Nahiago dut pentsatzea “Idealista”-n etxe berria bilatzea baino, beste konfinamendu bat gertatzen bada, kalera irtetera ausartuko garela gure eskubideengatik borrokatzerak, normaltasun berriak benetan berria izan behar duela aldarrikatzerak, ezta?

Hau da, ez gaudela prest inolako proposamen alternatiborik gabe men egiteko. Bestela, zein da aukera? Gure gain hartuko al dugu berriro adingabeen eta mendekoen zainketen zama, gure osasun fisiko eta mentalaren kontura, adingabeen eta mendekoen ongizatearen kontura, produzitzeari eta kontsumitzeari uzten ez diogun bitartean? Aurrekontu lehentasunak birplanteatzea eskatu gabe men egingen al dugu? Berriz ere ahaztuko al dugu publikoa, osasuna, hezkuntza eta gizarte zerbitzuak lehentasuna izan behar direla beste gai batzuen gainetik? Beste aldera begiratuko dugu osasun sistema publikoa ahuldu, ikastetxeak itxi eta zaharren egoitzak pribatizatzen eta masifikatzen dituzten bitartean?

Benetan? Konfinamendua osasun baldintzak betetzen ez dituzten etxebizitzetan itxita edo sukalde eskubiderik gabe gela partekatuta igaro duten guztientzat etxebizitza politika nahikoa eta duina egin orde, bururatzen zaigun aukera bakarra terraza duten etxeak erostea al da?

Ni udako beroekin apaldu baino sutan jartzen ari naiz. •

Benetan? Hain erraz onartuko al dugu berriro giltzapetzea? Berriz ere ahaztuko al dugu publikoa, osasuna, hezkuntza eta gizarte zerbitzuak lehentasuna izan behar direla beste gai batzuen gainetik?

ERROTARRI FORMAKO AURKIKUNTZA EDER BAT

Iñaki Sanz-Azkue

Dokumentu zaharrek azaleratu dute herritarrek ahaztua zutena. Jaizkibel mendian ezkutatua egon den XVI. mendeko ondare ederraren atzetik ibili gara ordutik. Denborak horitutako paper tolestuen hitzak josi, eta mendiko harkaitzetan gelditu ziren arrastoak irakurri nahian aritu gara. Eta hala, arian-arian, harginak harriari forma ematen dion moduan, eman diogu guk ere itxura bilaketari; eta lau mendetan ezkutaturik izan den errotarri itxurako aurkikuntza eder bat bistaratu zaigu mendi magalean. Gure historia gehiago xehatzen lagunduko digun errotarri harrobia.



Artxiboetako paperen moduan daude horituak Jaizkibelgo harkaitzak. Ez zaharrak direlako, hori ere egia baita, baizik eta harez osaturik daudelako. Hondarribiarrek “harri mimarriya” deitzen diote bertako harriari. «Mimatzeko edo lantzeko erraza delako omen da», diote. Ez da harritzekoa, beraz, Jaizkibel mendia harrobiz betea egotea. Dagoeneko landaretzak eta higadurak ezkutatu dituen harrobi txikiz betea.

Harrobi guztiak ez dira berdinak, ordea. Eta horien artean badira oso bereziak direnak ere, ondo aztertuta, XVI. mendeko ofizioei eta gizarteari buruzko informazioa emango digutenak: errotarriak egiteko harrobiak. Egun galduriko ofizioa da harrobi haietan lan egiten zutenena: errotarriak egiten zituzten harginak ziren eta, bere garaian, berariazko garrantzia izan zuten gizartean: errotarririk gabe, ezin zen errotarik martxan izan. Eta errotarik gabe, goseak herritarren etxeko atea jo zezakeen.

Hala, saltoka ibili gara paper horietatik harkaitz horietara. Batetik bestera. Arrastoa non topatuko. Jaizkibelgo errotarriak egiteko harrobi ezkutu horiek non diren jakiteko, paperak ez ezik, harkaitzak ere irakurri egin behar baitira.

DOKUMENTUAK ETA MAPA ZAHARRAK

1802ko “Diccionario de la Real Academia de la Historia” liburuak aipatzen




Embarcadero de Santa Engracia (Hondarribia)

zuen jada: «... *Jaizquibel en jurisdicción de la ciudad de Fuenterrabía... y se extiende desde el cabo de Higuer hasta la villa de Pasage y entrada del canal, y hacia la parte de Lezo abunda en piedra arenisca á propósito para edificios, losas y muelas de molino*». Besteak beste, errotarriak egiteko ere gune aproposa omen zen Jaizkibel mendia, beraz.

Aipu hori ondo gordea zuen Javi Castrok, Aranzadi Zientzia Elkarteko Etnografia Saileko kideak bere datu basean. Hor bukatzen ziren arrasto guztiak, ordea. Hortik aurrera, aztar-na gehiagorik ez zegoen. Herritarren artean ez zuen inork errotarriak egiteko gunerik ezagutzen, eta inguruko harginen artean ere, berririk ez. Eta hala izan da urte batzuetan, harik eta Maximo Sagarzazuren mapetan (ikus

“Attona Maximoren bihotzeko mapak” izeneko erreportajea) “errotarri” izeneko leku izen bat aurkitu genuen arte. Eta orduan, bai. Orduan, Jaizkibelgo errotarri harrobiak bilatzeko ikerketa zizelkatzen hasi ginen.

Javi Castrok urteak daramatza Euskal Herriko mendiak miatzen eta haietan errotarri harrobiak bilatzen, “Errotarri” izeneko proiektuaren baitan, eta Europa mailako proiektu zabalago baten babesean. Euskal Herrian, jada, 306 dira aurkiturikoak eta katalogatuak; baina Jaizkibelgoak baidu zerbait berezia. Ikertzailea kitzikatzen duen zerbait. Izan ere, Madrilen idatzitako liburu batek errotarriak egiteko mendi ona zela esateak harri-dura sortzen du. Bereziki ona behar zuen mendiak Madrilen mendiari buruzko ezaugarri hori nabarmentzeko.



Ahozko transmisioan, ordea, galdua zegoen jada harrobi horien kokapena. Erronka ez zen txikia. Eta hala, Maximoren mapek lehenbiziko frogatik ekarri zutenean hasi zen bidea irekitzen, eta ezkutuan zeuden arrastoak bata bestearen atzetik ateratzen.

Mapetan “errotarri” moduan azaltzen zen gunetik ez oso urruti, errotarri erdi bat aurkitu genuen 2020aren hasieran. Egiten hasi, erditik puskatu eta harginak mendian utzitako errotarria zen. Ikerketaren lehen harria, beraz, jarria zegoen.

Jon Aldaia hondarribiarrak aurkituriko dokumentu batek, baina, are gehiago indartu zuen gure ustea. Jaizkibelen errotarri harrobi handia behar zuen ustea. 1596an, Guadalupeko Ama izeneko itsasontzi batek 14 errotarri eramanean zituen Hondarribitik Sevillara. Errotarriak Andaluziara eramaten bazituzten, asko egiten zirelako seinale zen hura. Ez zituzten

Alboko orrialdean, harginek erabiltzen zuten gurutzaren teknikaren adibide garbia, Jaizkibelen topatua. Lerro hauen gainean, Aranzadiko kide eta erreportaje honen egilea den Iñaki Sanz-Azkue errotarri eder baten alboan. Ilustrazioak Javi Castro ikertzaileak eginak dira.

JAIZKIBEL ERROTARRI PROIEKTUA

bertako errotentzat egiten soilik. Guk Jaizkibelen aurkiturikoa, ordea, errotarri erdi bat baino ez zen. Zerbait ezkututzen zigun mendiak, baina ez genekien nondik hasi miatzen...

100 ERROTARRI JAIZKIBEL MENDIAN

Hala, Javi Castro adituak eta Yoseba Alonsok osaturiko lantaldeak dokumentu zaharrak miatzeari ekin zion. Oñatiko artxiboetatik tiraka, eta

Hondarribiko XVI. mendeko testamentuak ikertzen, lehenbiziko ezustekoa iritsi zen: Joanes de Aldasoro harginaren 1583ko testamentua. Bertan harginak errotarriei buruz hitz egiten du behin eta berriz, eta datu garrantzitsuak ematen ditu horien inguruan. Besteak beste, Jacobo de Azaldegui izeneko hondarribiarrari 62 errotarri utzi zizkiola, hark Pontevedrara eramanean eta sal zitzan. Eta are

Javi Castrok urteak daramatza Euskal Herriko mendiak miatzen eta haietan errotarri harrobiak bilatzen, «Errotarri» izeneko proiektuaren baitan, eta Europa mailako proiektu zabalago baten babesean

Euskal Herrian, jada, 306 dira aurkiturikoak eta katalogatuak. Jaizkibelgoak badu zerbait berezia. Izan ere, Madrilen idatzitako liburu batek errotarriak egiteko mendi ona zela esateak harridura sortzen du



eta harrigarriagoa dena: jada eginak eta landuak zituen 100 errotarri utziak zituela Jaizkibel mendian, eta beste 100, Hondarribiko Santa Engraziaren ermitaren aldamenean. Hala, gure usteek gero eta indar handiagoa zuten. Une horretan 200 errotarri eginak zituen harginak, eta dozenaka esportatzen zituen; beraz, harrobi ona behar zuen Jaizkibelen, errotarri horiek guztiak egiteko. Baina, non? Non ezkutatzen ote zen harrobi hura?

Hala, mapa zaharrak begiratzuz, eta haietan ageri diren arrastorik txikiei tiraka, mendiko miaketekin has-teko garaia etorri zen. Jaizkibel, ordea, handia izan, eta miatzen hasteko, nonbaitetik hasi behar. Erabaki beharra zegoen. Maximoren mapek eta 1667ko plano zahar batean azaltzen zen ermitak eman ziguten nondik hasi jakiteko lehen azterna: Santa Barbararen ermita zaharra zegoen ingurua miatu behar zen.


SANTA BARBARAREN ERMITA ZAHARRA

Egun Jaizkibelgo paradore zaharraren arrastoak dauden eremuan egon zen Santa Barbararen ermita garai batean (1543an aipatzen da lehen aldiz), eraitsi eta Guadalupera doan kalbario bidera lekuz aldatu zuten arte. Bestalde, deigarria gertatu zitzaigun ikustea bide zuzen bat zegoela dokumentuetan agertzen ziren eta harginekin lotura

zuten hainbat herritarren baserrietatik ermita ingurura. Eta, orduan, Javi Castrok bota zigun hipotesia: Santa Barbararen ermita han bazen, harrobiek ez zuten urruti izan behar. Ezjakinak gu, ez genuelako Javik esan nahi ziguna ulertu hasiera batean: Santa Barbara harginen zaindaria da, eta harginek euren ermitak harrobietatik gertu egiten zituzten, lanean ari ziren bitartean ba-bestuak egoteko.

Eta hala, mendiko ikerketa fasea hasi zen, eta hainbat harrobi kokatu genituen ermita egondako inguruan: Arrobieta, Arginzuloeta, Arrobarreta... eta izenik gabeko beste hainbat. Eta miaketak fruitua ematen hasi ziren: harlanduzko lanen arrastoak azaldu ziren ermita zegoen inguruko harkaitzetan, eta bidezidorrak, eta harginek utzitako markak, eta jarraian... zirkulu formako harri handi bat. Bista-bistan.

Errotarria egiten hasi eta mendian utzitako harria zen, garbi. Eta horren atzetik etorri ziren, beste bat, eta beste bat, eta, hala, eremu berean 10 errotarri oso aurkitu ziren arte. Hantxe genuen. XVI. mendetik bistan baina gorderik egon zen errotarri harrobi zoragarria. Arrasto, errotarri oso, errotarri puska, ateratzen hasi berri ziren errotarri eta beste mila xehetasunekin batera. Dударik gabe, zerbait berezia zuen lekuak: errotarriak egiten zituzten harginek nola lan egiten zuten era-



Hargina errotarria egiten, eta, aldamenean, Aranzadiko Javi Castro, Jaizkibelen aurkituriko errotarriaren aldamenean.

JAIZKIBEL ERROTARRI PROIEKTUA

kusteko leku aproposa da Jaizkibelgo errotarrien harrobia. Eskola txiki bat, eremu eder batean.

ERROTARRIAK SORTZEKO PROZESUA

Jaizkibelen aurkiturikoa harrobi handia dela esan daiteke, eta errotarriak sortzeko prozesuaren pausu guztiak ikusteko leku aproposa. Harrobi eredu-garria da zentzu horretan. Baina ikaragarriena zera da: ez dakienak ez du ezer ikusiko. Harkaitza, belarra eta harriak. Besterik ez. Azalpenen ostean, ordea, begiak ireki egiten dira, mendeetan atzera bidaiatzen du pertsonak, eta hargin haien lana ulertu. Hargin haien begien eta eskuen mugimendu zehatzez ohartuko da, eta bide batez, hori guztia baloratuko du. Hori ere badelako ondarea.

Jaizkibelgo errotarrien harrobian ez duzu aurkituko arreta deituko dizun lurreko hobi handirik edota horma handi zulaturik. Izan ere, harginek, lurra bera estaltzen duen harria erabiltzen zuten, handik harri blokeak atera eta errotarriak egiteko. Edota blokea atera gabe, harrian bertan errotarria egiten hasteko. Lurra zizelkatzen zuten, pixkanaka-pixkanaka, urtez urte, mendi magalaren paisaia ere eraldaketak egin arte. Eremua eta ofizioa ezagutzen ez duten gure begi ezjakinek, ordea, kostata sumatuko dituzte eraldaketa horiek, lan egiteko modu hura

ulertu arte. Baina hor daude. Bistan, baina ezkutaturik.

Eta begiek harkaitzak irakurtzen ikasten dutenean, bertan ikusiko ditugu harginek blokeak ateratzeko egiten zituzten zuloak edo falkak, guztiak erregulartasun handiz eginak. Ikusiko ditugu, halaber, harrian pikatzen hasitako errotarriak, edota dagoeneko zirkulu forma duten, baina gaina leuntzea falta zaien errotarriak egiteko harri handiak. Bi asteko lana omen zen errotarria harritik ateratzea. Jaizkibelgo harrobian, prozesu horretako egun ezberdinak antzeman daitezke, bai eta harginek erabiltzen zuten errotarriak egiteko teknika ere. Eskuak ez ezik, buroa ere martxan izaten zutelako harginek.

HARGINAREN OFIZIOA

Harginarena aitatik semera igarotzen zen ofizioa zen garai hartan. Batetik, lanerako tresnak behar zirelako etxean, eta bestetik, esperientzia. Eta, era berean, hala erakusten dute dokumentu zaharrek. Domingo de Aldasoreoren semea, Joanes de Aldasoro, zen testamentuko harginetako bat, eta dokumentu zaharren arabera, Santa Barbararen ermitako maiordomoa ere bazen 1581ean.

Profesionalak ziren harginak, eta teknika eta lan egiteko modua ikasia zuten. Ondo ikasia, gainera. Pisu handiko bloketzarrak hausten zituzten falkak eginez, ikaragarrizko zehaztasunarekin, eta, horren ondoren, behin harriari zirkulu forma emanda, errotarria leuntzeko lanak hasten zituzten. Baina, nola leundu? Nola jarri errotarriaren bi aldeak distantzia berera eta koskarik gabe ondo leunduta? Plano bakar eta zuzen bat eginez?

Harginek gurutzearen teknika erabiltzen zuten horretarako. Harrian, goitik behera eta ezkerretik eskuinera, erregelen laguntzaz gurutze bat egiten zuten harria pikatuz. Eta horrek errotarriaren lau aldeak maila berean leuntzeko aukera ematen zuen gero. Euskal Herriko mendietan gutxi dira egundaino aurkitu diren eta harrian markaturiko gurutzea duten errota-

Ezker-eskuin: Gipuzkoako Foru Aldundiko basozaina eta teknikaria harrobia bisitatu zuten egunean, errotarri baten aldamenean, Yoseba Alonso eta Jon Aldaia ikertzaileekin.
JAIZKIBEL ERROTARRI PROIEKTUA



rriak. Jaizkibelgoan, errotarri oso bat ikus dezakegu gurutzea markatuta duela.

XVI. MENDEKO GIZARTEAREN ISLA


Errotarriek, alabaina, ez digute soilik ofizio bati buruz hitz egiten. Askok ziren lanbide zahar honek bere atzetik zekartzan lan egiteko moduak eta beharrak, eta horiek guztiak marrazten dute XVI. mendean Jaizkibel inguruko herrieta-ko eta Euskal Herriko gizartea nolakoa zen ulertzeko koadroa. Izan ere, dokumentu zaharrenek 1580ra eramaten gaituzte zehazki Jaizkibelgo errotarriei buruz hitz egiten dugunean, baina badira XVI. mende Erdiko arrastoak ere artxiboan. 1550ean, esaterako, Hondarribiko “María” izeneko zabrak kortsa-rio frantsesen erasoak jaso zuen Coruña, eta dokumentuen arabera, burdina, brea, labanak eta errotarriak

zeramatzan itsasontzia La Rochellera eramane zuten. 1568an, errotarriak eramane ziren San Miguel itsasontzian, Paisaiatik Sevillara. Dokumentuek oraindik ziurtatu ez badigute ere, oso litekeena da erdi arotik etortzea harrobi berezi horien erabilera. Horretarako, ordea, dokumentuek hitz egin beharko dute. Adi egon beharko dugu, baina. Paperek ez ezik, ondo irakurrita, errotarriek ere badutelako zer esana.

Esaterako, Jaizkibelgo harrobian tamaina ezberdineko errotarriak aurkitu dira. Frantzia egindako ikerketek diotenari jarraituz, gero eta errotarri zaharragoa izan, orduan eta tamaina txikiagoa izan ohi du. Eta Jaizkibelen aurkitu diren txikienak 110 zentimetroko diametrokoak izan dira. Ikerketek diotenari kasu eginez, XV-XVI. mendekoak. Beraz, harriek eta dokumentuek hizkuntza bera hitz egiten dute oraingoz.


Eremu berean hamar errotarri oso aurkitu dira. Oso leku berezia da. Errotarriak egiten zituzten harginek nola lan egiten zuten erakusteko leku aproposa da Jaizkibelgo harrobia. Eskola txiki bat, eremu eder batean

Ikaragarriena zera da: ez dakienak ez du ezer ikusiko. Harkaitza, belarra eta harriak. Besterik ez. Azalpenen ostean, ordea, begiak ireki egiten dira, mendeetan atzera bidaiatzen du pertsonak, eta hargin haien lana ulertu



Ondorio berera eramaten gaituzte. Baina harri handiagoak ere aurkitu dira harrobian. Beraz, garai berriagoetako harriak ere badira. Horien dokumentuak aurkitzeko lana egin beharko da, ordea. XVI. mendeko dokumentuetako 3.000 orri baino gehiago irakurri dituzte azkenengo hilabeteetan Castro eta Alonsok. Denborak esango du noiz amaitu zen errotarriak egiten zituzten harginen ofizioa.

Garbi dagoena da, alabaina, errotarriek lana sortzen zutela eta orduko gizartean ere izan zutela euren lekua. Hala, dokumentu zaharretako aipamenak ikustea baino ez dago ofizioaren inguruan zegoen guztia ulertzeko. Izan ere, harrobiak (batzuk behintzat) Udalarenak ziren, eta errentan uzten zizkien enkantean hartzen zituzten pertsoneri, diru baten truke. Haiek hargina kontratatzen zuten, eta harginak, langile gehiago (behar bazuen) eta errotarriak gurdiz herrira jaisteko pertsona. Hondarribiko kasuan, gainera, testamentuek dioten moduan, Santa Engrazia izeneko ermitaren aldamenean uzten zituzten harriak batzuetan. Izan ere, gabarrak bertaraino iristen ziren errekan gora, eta beste pertsona batek gabarrarekin eramaten zituen haiek portura. Han, itsasontzian sartzen zituzten, testamentuek dioten moduan, harginarekin tratua egin zuen merkataria Pontvedrara, Cadizera edo Sevilalara eramateko. Harrobia itsasotik gertu bazegoen, ordea, zuzenean



sartuko zituzten txalupara, garraiatuak izateko.

GALDERA ASKO XEHATZEKO

Duela hilabete gutxi hasitako ikerketak galdera asko erantzun ditu jada, baina gehiago dira bidean sortu dizkigunak. Lau dira dagoeneko Jaizkibel mendian aurkitu diren errotarri harrobiak, baina badakigu gehiago azalduko direla. Lantaldea handitzen joan da, eta etnografia saileko kideak ez ezik, historia-lariak, geografoak eta laguntzaile sorta bat elkartu zaizkie horiei. Halaber, sortu ditu egundaino inoiz bururatu ez diren kontuak. Hala, garai hartan errotarri bakoitzak dirutza (egungo 3.000-4.000 euro) balioko zuela jakinda, utziko al zenituzkete 100 errotarri Jaizkibel mendian inork zaindu gabe? Erantzunak nahiko garbia dirudi: ezta pentsatu ere! Beraz, izango al zuen “harrizainik” kontratatuta harginak? Eta Jaizkibelgo mapa hartu eta aztertu-ko bagenu, ez al da kasualitatea, harrobia dagoen inguruan “artzain arpia”

izeneko harpe bat izatea, nondik harrobi guztia ikusten den, edota “artzain kaxkoa” edo “artzain lepo”, “artzain aurria” eta “artzain atzia”? Filologo eta leku izenetan adituak direnei galdetuta, behintzat, “artzain” (edo “arsain” dokumenturen batean) “harrizain” hitzetik eratortzea ezin da baztertu. Ikertu beharreko kontua da, ordea, harginak “harrizainik” ba ote zuen.

Ikusi beharrekoa da, halaber, noiz arte iraun zuen ofizioak, eta erabiltzen zituzten teknikak eta mugitzeko moduak leku guztietan berak al ziren. Harrobiak Hondarribiko eta Pasaiako lurretan aurkitu dira. Izango al dira gehiago? Izango al dira Lezon?

Erantzungo al digute dokumentuek nortzuk izan ziren hargin ezagunak eta zein ofizio gehiago lotzen zituen errotarren kontu honek, edo izango al den oraindik inguruko errotaren batean Jaizkibeldik aterako errotarririk. Baina galdera ederrik bada, bada bat guztiok zain gaituena. Erantzuna jaki-

Herriko ondarea belaunaldi berriei ezagutaraztea da hura babesteko modu onena. 5 urteko umea, 400 urte inguruko Jaizkibelgo errotarriaren gainean. Denborak eta naturak estalitako errotarria. Lerro hauen alboan, Jaizkibel izena 1576. urteko grafiaren arabera idatzia.

JAIZKIBEL ERROTARRI PROIEKTUA

teko gogo biziz gaituena: Ez al da kasualitatea aurkitu ditugun agiri gehienek aipatzea itsasontziek Jaizkibelgo errotarriak Galiziara, Cadizera eta Sevilalara eramaten zituztela?

Izan ere, agiri zaharrek adierazten dutenaren arabera, portu horiek ziren Ameriketara zihoazen itsasontzien irteera puntua. Ez ote da izango XVI. mendeko Jaizkibelgo errotarriak Ameriketan saltzeko eginak zirela?

Hala izan edo ez izan, Jaizkibelgo errotarren ikerketak galdera asko ditu oraindik xehatzeko, eta Hondarribiko eta Pasaiako herriek, ondare eder bat ikertzeko, zabaltzeko eta zaintzeko. Guk buruko errotak mar txan ditugula jarraituko dugu. Errekako urak alde baditugu, are hobeto!

Hala, noizbait, agian jakingo dugu Amerika urrunean oraindik ere izango ote den Aldasorotarren familiak Jaizkibelgo “harri mimarriyan” zizelkaturiko errotarririk. Eta nork daki, oraindik ere bueltaka jarraituko ote duen Atlantikoaren beste aldean.

Despisteak eta hanka sartzeak

Joxean Agirre

Despisteak, ondoriorik gabeak direnean, sinpatikoak egiten zaizkigu. Pasteur, esate baterako, bere bakterioekin hain zebilen emozionatuta egun haietan non ezkontzera joan behar zuela ahaztu zitzaion eta gonbidatuak etorri behar izan zuten bere bila, emaztegaia, Marie Laurent, denbora luzez itxaroten zeukala gogarazteko.

Koldo Mitxelenak kontatzen duenez, Azkue ere gremio horretakoa zen. Gerran Eusko Jaurlaritzatza eratu zenean, Euskaltzaindiak gobernu berriari bisitan joatea erabaki zuen. Lekeitiora joan ziren euskaltzainburuaren bila eta Bilbora abiatu ziren. Azkue ez omen zen gehiegi enteratzen gerraz ere, kezkatuagoa zebilen nonbait esku artean zuen “Euskalerriaren

yakintza” lanarekin. Herriko irteeran gizon-nezko bat aurkitu omen zuten guardia egiten uniforme, fusil eta guzti. «Zein da gizon hori?», galdetu omen zuen Azkuek eta miliziano bat zela esan ziotenean «Zer da miliziano bat?», galdetu omen zuen.

Nik neure begiz ikusi dudan despisterik ederrenetako bat Xabier Sanchez Erauskinena da, “Punto y Hora” astekariaren zuzendari zenarena. Gizona presaka ibili ohi zen eta egun batean autoari motorra itzaltzea ahaztuta igo zen erredakziora. Norbaitek esan zion autoa martxan utzita etorri zela eta ez zen askorik larritu, «posible da» esan zuen eta joan zen itzaltzera.

Despisteak sinpatikoak dira, baina hanka sartzeak askotan larriak. 90eko hamarkadan hasi zen Europako Garraio Batzordea

Abiadura Handiko Trenaren mapak diseinatzen eta oso gutxik pentsa zezaketen gaurko egoerara iritsiko ginenik. Euskal Y-a da Euskal Herrian egin den inbertsio publikorik erraldoiena eta izango da seguru asko egin den hanka sartzerik kolosalena ere. Gauzak dauden bezala (gainkostu, atzerapen eta lotura faltez gainera funtzionamenduan edukitzeko dirulaguntza etengabeak beharko ditu) ederra litzateke politikoren batek esango balu: ez genuen zuhurtziaz jokatu, hanka sartu dugu, ez dakigu zer egin, epe bat hartuko dugu gauzak eztabaidatzeko. Ez lukete sikiera errua aitortu beharrik ere izango. Zailantzak dituztela esatea aski lukete eta nik barkatu egingo niekeela uste dut. Baina, lasai egon, ez da halakorik gertatuko. •

Zoazte pikutara!

Nekane Zinkunegi
Barandiaran

Zer, ez al duzu gizendu behar? Zuri ez al zaizu sabela inoiz hazi-ko?»; «Botagurarekin al zabil-tza? Seguru neska izango dela»; «Zu-re aurpegia ikusita, mutila izango da»; «Bihotzerrea izaten al duzu? Orduan, ile askorekin jaioko da»; «Hara, oraintxe ha-si zara haurdun itxura apur bat hartzen, oinez ibiltzerakoan hanka zabalka»...

«Zer da, mutila ala neska?». Ez diogu belarritakorik jarri, eta jendeak badu nahiko lan. «Aizu, protestan ari da, atera ezazu ume kotxetik»; «A, zuek ere za-

pian bilduta eramaten al duzue? Ez da hozo-tuko, ez»; «Negarrez ari da, goseak egongo da»; «Bularrari berak hel die-zaion uzten duzu? Guri geuk sartu be-har geniola erakutsi ziguten ba»; «Zer moduzko gauak izaten ditu? Nireek gau osoan lo egiten zuten»; «Ez al diozue txupeterik eman? Ba bularrera ohitzen baduzue, ama erabiliko du txupete gi-sa»; «Seguru al zaudete lau hilabetere-kin soilik haur eskolara eramateaz?»...

Ba ez, ez nago ehuneko ehunean ezertaz seguru. Eta uste dut haurdunal-

diak eta amatasunak behar dutela dau-katena baino dimentsio publikoagoa. Baina publikotasun hori haurdun da-go-en edo ama izan den emakumearen erabaki guztiak auzitan jartzeko bada, hura epaitzeko bada, kaltegarria izan daiteke oso.

Beraz, ba al dakizue zer esaten dizue-dan besterentzako aholkuak de-balde di-tuzuenoi? Zoazte pikutara! Zerbaitez erabat ziur banago, badakit zuek egin zenuten adina egiteko gai izango garela: ahal duguna. •

UHINA BEKAK

Pentsamendu kritikoa plazaratzeko ekimena abiatu dute Ipar Hegoa eta Iratzar fundazioek

Iragan astean aurkeztu zituzten Iratzar eta Ipar Hegoa fundazioek sortutako Uhina bekak. Idoia Zengotitabengoak eta Jagoba Zuluetak, hurrenez hurren bi fundazioetako kideek, laguntzon helburua azaldu zuten: pentsamendu kritikoa bultzatu eta saretzea.

Ikasleen ibilbide akademikoan edo militantzia esparruetako gogoeta eremuetan sortzen den pentsamendu kritiko eta politiko berrituari egin nahi dioten ekarpena dira Uhina bekak. «Plaza publikora jauzi egitea ez da samurra eta gure alde-tik pentsamendu kritiko hori aitortu eta saretzen eta hedatzen lagundu nahi dugu. Gogoeta eta eztabaida politikoa freskatu eta aberasteko uhin berriak irits daitezen behar dugu», esan zuten aurkezleek. Uhin berri horiei hedatzeko kanala zabaltzea nahi diete, errealtatearekin elkarriketan jarri eta biderka daitezen.

SEI ARDATZ

Sei atal edo ardatzetan sailkatu dituzte bekak: burujabetza eta estatugintza; ekonomia eta sindikalismoa; feminismoa; euskara, kultura eta nazio-gintza; iragana, etorkizuna eta iruditegi soziala, eta azken beka Euskal Herriko Unibertsitateko "Subiranotasuna Europako herrietan" masterreko amaierako lan bati emango diote. Sei atal, baina zazpi beka; izan ere, ekonomia eta sindikalismo ataleko bi lan sari bana emango diete. Beka denak 500 eurokoak izango dira, «sari xumeak», baina lan horiek argitaratzeko aukera ere izango da.

Artikulu luzeak edo liburuak izan daitezke, baina beste for-

 **JENDARTEA** / Xabier Izaga Gonzalez

Pentsamendu kritikoa bultzatu eta saretzeko asmoz, Uhina bekak sortu dituzte Iratzar eta Ipar Hegoa fundazioek. Uhin berriak eragingo dituzten ideiak eta proposamenak errealtatean eta «hainbat esparruren arteko elkarriketan» uztartzeko «ekarpen txiki bat» egitea dute helburu.

matu batzuk ere onartuko dituzte: hala nola dokumentala edo dinamika sozial bat. Izan ere, lan horiek bizitza izan dezaten nahiko lukete, «plazara joango den ekarpena izan daitezen». Ezinbesteko baldintza da, halaber, lanak euskaraz egin eta aurkeztea. Deialdia Euskal

Herriko zazpi lurraldeetako edonorentzat da, baita arrazoi sozial, ekonomiko edo politiko-ren batengatik atzerrian bizi diren euskal herritarrentzat ere.

Bere lana aurkezteko asmoa duenak uda osoa izango du proiektua zirriborratzeko, beka eskatzeko epea irailaren 30era

Uhina beken iragarkia.
IRATZAR - IPAR HEGOA



artekoa da eta. Data hori baino lehen, lanaren laburpen bat eta haren nondik norakoak aurkeztu beharko ditu: hipotesiak, helburuak... eta egilearen curriculum. Hurrengo hilabeteetan proiektuen hautaketa eta balorazioa egingo dute arlo akademikoko zenbait lagunek. Hautatutako lanen egileek sei hilabeteko epea izango dute beren lana garatu eta 2021eko udan osorik aurkezteko. Informazio zehatza nahi duenak www.iratzar.eus eta www.ipar-hegoa.eus webguneetan topatuko du.

HERRI PROZESURAKO LANABES

«Badakigu hau ekarpen xumea dela, beste batzuek egiten dituzten beste askorekin jakintza eta ezagutza berri horri guztia-ri sostengua eta behar duen bultzada eta kanala emateko ekarpena da. Ekarpen txiki baina beharrezkoa», diotsa Jagoba Zuluetak GAUR8ri. «Euskal Herriak behar duen sormen prozesuari edo ildo sortzaile horiei guk laguntza ematen diegu. Ez da gure fundazioen barnean gertatzen den prozesua, baizik eta herrian dagoen prozesua, eta hau horretarako lanabes bezala ulertzen dugu».

Zuluetak dioenez, izango da buruan ideia bat izan eta zero-tik hasitako lanen bat aurkeztuko duenik, baina «seguruenik, horientzat irekita egonda ere, proiektu honen hartzaile nagusia jadanik zerbait aurreratuta daukana da, are unibertsitatean master amaierako lan bezala edo tesi bezala aurkeztuta edukita, hor utzi baino beste forma batez idatzi, kalerako, eztabaida politikorako edo beste eztabaida batzuetarako modu baliagarrian jarri nahiago duena. Badakigu badagoela horrelako jende pila bat Euskal Herrian».

JAGOBA ZULUETA

IPAR HEGOA FUNDAZIOKO KIDEA

«Adimen kolektiboa eraiki nahi badugu, kolektibo hori ere ireki egin behar da, ezin da izan ‘betiko jendea’, edo kopuru mugatu bat»

Ipar Hegoa eta Iratzar fundazioen zereginetako bat pentsamendu kritikoa bultzatzea da, hain zuzen. Beka hauen xedea pentsamendu hori plazara agertzea dela ulertu dut.

Ekimen honek zehazki helburu hori bilatzen du. Gure ustez, pentsamendu kritiko hori egon badago, jakintzaren eta ezagutzaren ikuspuntutik esparru pila batean gazte asko, eta gazteak ez direnak ere bai, lan izugarria egiten ari dira, ikasketen bidez, unibertsitatean, tesietan eta masterretan, baita akademiatik kanpo ere, baina zentzu eta norabide berean, gure fundazioetan eta beste ikerketa edo gogoeta zentro batzuetan egiten den bezala. Baina, era berean, ikusten dugu badagoela nolabaiteko zailtasuna egoera berri bat eraikitzeko ezagutza berri hori, eraldaketa prozesuari gaur egungo egoerak eskatzen dituen erantzun eta proposamenak eta freskotasun berria ekartzeko beharrezkoak diren horiek plaza publikora, plaza politikora iristeko.

Orduan, teoriarik eta praktikan horretan ari gara, baina geure buruari galdetzen genion Ipar Hegoa eta Iratzar erakundeek dauzkaten prestakuntza beharretatik haratago ere ez ote genuen eskaini behar gure bidea kanal gisa, hainbat pertsonari laguntza eman eta uhin horiek plazara irits daitezen.

Hainbat esparru elkarrizketan jarri nahi dituzuela diozue. Haien arteko inkomunikazioa sumatu duzue?

Elkarrizketan jartzea esaten dugunean, adierazi nahi dugun ideia da ikasle asko eta militante asko badabiltzala egoera bat ikertzen, hipotesiak egiten, erantzunak bilatzen, baina beharbada haien lana horretara mugatuta geratzen dela. Esate baterako, esparru akademikoan geratzen denean, ez da errealitatean eragiteko erreminta bilakatzen. Eta guk horretarako izan behar duela uste dugu.



Idoia Zengotitabengoa eta Jagoba Zulueta, Uhina bekak aurkezten GAUR8

Norantz goazen eta gure helburuetara gehiago hurbiltzeko eraikuntza ziklo berri baterako zer erreminta behar ditugun nolabait definitu behar dugulako sentsazioa dugu, eta horretan uste dugu badaudela ideiak, jakintza, lan ugari, baina errealitatearekin hizketan jarri behar ditugula diogu, hutsune bat dagoela pentsatzen dugulako. Hau da, hori guztia ez denez eramaten bere osotasunean edo parte handi batean eguneroko lan militanterik, bestelako eraldaketa prozesuetara edo nahi ditugun esparru guztietara, ez denez behar bezala plazaratzen, etenda dago elkarrizketa; ez dago hartu-eman bat eremu teoriko horren eta herrigintzan jarduten duen jende guztiaren artean.

Akademiako lan teorikoaren eta kalearen artean, esate baterako?

Bai, eta askotan pertsona berak dira. Herri txikia gara, ez dago harresi bat, unibertsitatea ez da jende arrotzez betetako lekua, badago herrigintzan ere

diharduen jendea. Herrigintzarako, politikagintzarako, sindikalismorako eta bestelako mugimendu batzuetarako ere badauzkagu egitura finkoak, baina askotan aire berria hartu eta bestelako ondorio batzuk biderkatzea kostatzen zaienak. Hor ikusten dugu hutsunea, ez pertsonen edo mugimenduen arteko etena, baizik eta uhin berri horiek zer-nolako protagonismo eta lekua daukaten sortzen ari garen ziklo berri baten definizioan. Uste dugu ahots gehiago, ideia gehiago eta berriak behar direla. Azken batean, adimen kolektiboa eraiki nahi badugu, benetan kolektibo hori ere ireki egin behar da, ezin da izan «betiko jendea», edo jende kopuru mugatu bat. Herri honek daukan indarrak askatu egin behar ditugu. Benetan dagoen potentzial horri bide emateko, aitoritza bat egiteko gai izan behar dugu, eta elkarrizketa horren bitartez jende asko aditutzat jo eta aditu bezala entzun, proiektuak aurrera eramane behar ditugunean oinarri askoz aberatsagoa eta eguneratuagoa izateko.

Burujabetza eta estatugintza atalari dagokion azalpenean diozuenez, demokratizazioaren pribatizazioaren garaia da hau. Aurreko krisian kapitalismoa aldatu beharra zegoela onartu zuten askok, eta covid-19aren honetan ere sistema publikoaren defentsa sutsuak entzun ditugu; hala ere, uhin indartsua beharko da kapitalismoaren uhinaren aurka.

Krisi garaiaren hasieran entzun genituen horiek, kapitalismoa birfundatu egin beharra zegoela, edo covid-19aren ondoriozko krisian ere estatuen esku hartzearen aldeko iritzia asko, zerbitzu publikoak loriatuz... baina gero, gauzak pixka bat baretzen direnean eta urgentziak desagertzen direnean, ikusten dugu zein diren aplikatzen dituzten neurriak, eta benetan zein den parean daukagun etsaiaren dimentsioa. Horregatik, uste dut badaukagula eginbehar bat, pentsatzea horren neurriko mailan jarri nahi baldin badugu, herri bezala jokatu behar dugula. Norberaren txikitasunetik eta talentutik ideia bikain batekin zerbait lortuko dugula pentsatu beharrean, artikulatu egin behar ditugu uhin horiek, baita pentsamenduan egon daitezkeen protagonistak eta ideiak ere, eta gure artean ideiak partekatze esparruak eraiki, horietatik abiatuta elkarrekin hazi, eta egoerari eta erronkari aurre egiteko moduko eta haien mailako erantzunak topatuko ditugu.

Burujabetza eta estatugintza ardatz bat da. Herri honek estatu bat eraiki behar du bere jendea babesteko, aurrera egiteko, bestelako eredu bat eraikitzeko. Eta burujabetzaren ideiak gai edo beka konkretu hori ez ezik, beste guztiak ere zeharkatzen ditu, nolabait ideia zentrala da: herri gisa, pertsona gisa, gorputz gisa zer egin dezakegun, zer egin behar dugun eredu justuago eta askeago bat izateko eta horretan bizitzeko.



Garazi Goia - @GaraziGoia
Idazlea

Kontrolatu ezin dugun hori



Nire ibilbide profesio-
lean zehar coach asko
izan ditut, erabakiak
hartzen lagundu dida-
te, aldaketa positiboak
egiten, perspektiba
berrien balioa estimatzen eta bene-
tan betetzen nauen horren bilake-
tan ezinbestekoak izan dira. Behin
eta berriz ematen zidaten aholkua as-
kotan etortzen zait gogora: «zure esku
ez dauden edo kontrolatu ezin ditu-
zun kezkak atera zure pentsamendu-
tik». Gehien eskertuta nagoen coach-
ak bizkarrean zintzilik genituen
tximinoen analogia erabiltzen zuen
beti: «kendu bizkarretik parasitoen
moduan gainera etortzen zaizkizun
tximinoak eta lasaitasuna sentituko
duzu; fisikoki, mentalki, modu guztie-
tan». Sarri gogorarazten diot neure
buruari esaldi hori, oraindik ez dut-
eta guztiz lezioa ikasi.

Ez zen noski haiek asmatutako aholkua, duela bostehun urtetik gora Michel de Montaigne filosofoak esandakoa da «nire bizitza inoiz gertatu ez ziren ezbeharrez beteta egon da» eta horren inguruko hausnarketa ugari

egin zituen. Hainbat azterketatik ondorioztatutako estatistikek diote, arduratzen gaituzten kezken %85 ez direla inoiz gertatzen; eta, gertatzen diren %15aren artean, gehiengo handi bat (%80 ingurukoa) espero genuen baino errazago kudeatzen eta gainditzten dugula.

Covid-ak ziurgabetasunaren pisua handitu duen honetan, kezka berri asko sortu dizkigu, ahuldu egin gaitu eta tximinoz bete digu bizkarra, garuna eta etxea. Coach-en lana birsortu egin du, kezka horiek nola kudeatu jakiten lagundu diezaguten eta indartsu jarraitu dezagun. Hiperkomunikazioaren teknikari jarraitzen dio nire enpresak, bulegoan ez gauden bitartean denok konektatuta senti gaitezen, gertutasuna manten dadin. Finean, kontrolatu ezin ditugun kezka horiek kudeatzen laguntzeko teknika bat da baita ere. Noiz itzuliko gara berriro bulegora; gure lanpostua arriskuan ote dago; enpresaren errentagarritasuna behera doanean zein izango da datorren hilabeteko lehentasuna; benetan nahitaezkoak ez diren gastuak murrizteko eskatu digutenean, nahi-

taezkoak izango ote gara etorkizunean. Nor da, izan ere, nahitaezkoa?

Nurri handi batean behintzat oraindik «etxean» jarraitzen dugu Londresen. Denda gehienak duela astebe- te ireki bazituzten ere, hasierako egunetako erreakzio kontsumista ol- darkor eta katartikoaren ostean, lasai daude kaleak, prudentzia eta mesfi- dantza sentitzen dira. Uste nuen bar- ruan egoteak sortu zigun ezinegona eta arnas beharra gehiago antzeman- go zela. Oraindik ere barrurako sena daukat nik ere, auzoan ibiltzekoa, urrunegi joan gabe. Hiru hilabetea lehenengo aldiz joan nintzen liburu denda batera aurreko asteburuan eta sentsazio gozoa izan zen, baina hori izan da dendatara sartzeko nire saia- kera bakarra.


Tabernak eta jatetxeak hamar egun barru irekiko direla esan zuen Boris Johnsonek atzo. Mezuak sortu zuen euforiaren ostean, politikoez kontrolatu nahi izan dute lehergailu hori eta aholku arretatsu eta zuhurragoekin jarraitu zuten segidan: beharbada birusaren bigarren fase bat aurreikusten dutela; agian, lehenengo fasea baino hilgarriagoa izango dela; ausaz eskolak berriro ere itxi beharko dituztela; akaso txertoa asmatuko dutela urte amaierarako; balitekeela berriro ere itxialdi zorrotzago bat egin beharra izatea.

Beharbada. Agian. Apika. Ausaz.
Akaso. Baliteke.

Kontua da inork ez dakiela zer gertatuko den. Ez dakigu ezer, espekulazioaren txotxongiloak baino ez gara. Lagun batek esaten zidan atzo. Egokia ote da hegazkin bat hartzea? Orain ez badugu egiten, akaso urrian ezingo dugu egin, edo eguberrietan ere egeera ez da orain baino hobea izango. Noiz arte egongo gara irla honetatik atera ezinik? Kezka etiko, praktiko, logistikoko eta batez ere emozional guztiekin borrokan jarraitu beharko dugu. •

BEHATXULO[TIK]

Juantxo EGAÑA



«KANBOKO TXIKITO» TXAPELDUNA, FRONTEAN ERE PILOTARI

Joseph Apestegy, "Kanboko Txikito" goitizenez, 1881ean jaio zen. 17 urterekin xisterako munduko txapelduna izan zen lapurtarra, eta 1914ra arte etenik gabe eutsi zion titulu horri, baita ondoren ere, 1919tik 1923ra arte. 1900eko Parisko Olinpiar Jokotan parte hartu zuen, Erakusketa Unibertsalaren barnean, eta anaiarekin batera brontzezko domina bat lortu zuen. Mundu osoan barrena ibili zen, besteak beste, Madril, Paris, Kairo, Alexandria, Habana, Buenos Aires eta Mexikoko pilotalekuetan jokatzeko. Kondairak dioenez, Lehen Mundu Gerran lapurtar pilotariak bere xisterarekin granadak jaurtitzen zituen alemanen lubakietara. 1915eko otsailaren 11ko "J'ai vu" aldizkariak Kanboko Txikitori frontean zela ateratako argazki bat argitaratu zuen, eta pilotari famatuak granadak jaurtitzeko zuen trebetasuna aipatu. Lapurtarraren erregimentuko kide batek senitarteko bati idatzitako gutun batean honela zioen: «Pilota formako bonba txikiak ere baditugu, Kanboko Txikito xistera batez botatzen dituenak». Gerra amaitutakoan, bi sari eman zizkioten, Gerrako Gurutzea eta Ohorezko Legioa. Kanboko Txikito 1950ean hil zen, Donibane Lohizunen.

ohiz kanpoko bizipen kolektiboa

Harkaitz Cano idazlearen egunkariaren bidez eta
Foku agentziako hamasei argazkilariren begiradaz kontatua,
historiarako irudi ezohiko eta zirraragarriekin

gure oroimen emozional eta grafikoa

Euskal Herria begiratzeko beste modu bat

izurria hemen

FOTODIARIO DE UN CONFINAMIENTO

Harkaitz Cano • Foku



Asteburu honetan

kioskoetan (prezio berezia: 20 euro)

edo **Naiz Dendan** (denda.naiz.eus)

Edizio elebiduna: euskara / gaztelania
Azal gogorreko koadernaketa, 184 or.
GARAK argitaratzen du

etorkizunerako testigantza aparta

GARA

